

# AGIRIAK

EUSKAL POETAK  
ETA ARTISTAK  
G. ARESTI-REN OMENEZ

# AGIRIAK

EUSKAL POETAK

ETA ARTISTAK

G. ARESTI-REN OMENEZ

GIPUZKOAKO AURREZKI  
KUTXA PROBINTZIALA

1978

<i>Izenburua:</i>	«Agiriak, Euskal poetak eta artistak G. Arestiren omenez».
<i>Olerkariak:</i>	A. Agirreazaldegí, B. Albizu, N. Alzola, A. Aranburu, M. Arregi, F. Artola (Bordari), J. A. Arze (Harzabal), B. Aurre Apraiz (Aurratiz), J. Azurmendi, X. Azurmendi, A. Bilbao, M. Erdozaincy-Etchart, E. Erkiaga, M. Ertzilla, E. Etxamendi, J. A. Etxebarria (Dirauket), P. Etxeberria, S. L., B. Gandiaga, J. I. Goikoetxea (Gaztelu), Iratzeder (X. Diharce), J. M. Irigoyen Aranberri, Itsubia (G. Mujika), M. Iturbe Balda, P. Iztueta, J. Kerexeta, E. Kortadi, D. Landart, G. Lantziri (G. Alfaro), A. Lasa, M. Lasa, J. M. Lekuona, X. Lete, B. Mujika, A. Muniategi, S. Muniategi, L. M. Muxika, S. Onaindia, Otsalar (J. S. Martin), M. Pagola, R. Saizarbitoria, I. Sarasola, M. Tejeria Eizmendi, G. Trintxerpe (P. Zabaleta), P. Urkizu, M. Zarate, I. Zubizarreta, J. Zulaiká.
<i>Irudigileak:</i>	J. G. de Aguirre, J. J. Aquerreta, J. Arocena, N. Basterrechea, F. Beorlegui, F. Beristain, C. Bizkarrondo, D. Blanco, E. Chillida, J. Egaña, J. Garro, J. L. Goenaga, T. Hernández Mendizabal, A. Ibarrola, S. Iñurrieta, I. Larrañaga, V. Larrea, R. Mendiburu, J. Mieg, F. Mirantes, A. Olariaga, C. Ortiz de Elguea, J. de Oteiza, Ruiz Balerdi, P. Saint-Esteben, A. Tapia, J. M. Telleria, D. Txopitea, J. Ugarte, R. Ugarte, S. Urquijo, J. L. Zumeta.
<i>Bilduma:</i>	«Guipúzcoa».
<i>Zenbakia:</i>	7
<i>Argitaldaria:</i>	Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
<i>Argitalpen zuzendari:</i>	Julio Abad Mata.
<i>Argitalpen produktore:</i>	María del Coro Landa Lacunza.
<i>Argitalpen koordinatzaile:</i>	Juan San Martín.
<i>Hiltzaurrea:</i>	Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
<i>Aintzin-solasa:</i>	Juan San Martín.
<i>Argitalpen eskubideak:</i>	Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
<i>Argitalpena, erregistro zenbakia:</i>	936
<i>I. S. B. N.:</i>	84-7231-420-0
<i>Legezko gordagi:</i>	S. S. - 225 - 78
<i>Lehen argitalpena:</i>	5.000 ale.
<i>Argitalpen data:</i>	1978ko maiatza.
<i>Inprimatzaile:</i>	Industria Gráfica Valverde, S. A.
<i>Maketa:</i>	I. G. V.'n estudioan.
<i>Fotoiltoak:</i>	Kodak.
<i>Zuzenketak:</i>	Juan San Martín.
<i>Papera:</i>	Azala, Martel Kote 380 grs. Barneak, Printomat 140 grs.
<i>Letra mota:</i>	French.
<i>Tintak:</i>	Lorilleux.
<i>Inprimatze erak:</i>	Offset.
<i>Kuadernaketa:</i>	Encuadernaciones Navarro, S. A. - Navarra.

# AURKEZPENA

*Gabriel Aresti, Euskal Poeta, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialarekin hitzmana zegoen, AGER bidez, Euskal Hiztegi Arauemailea burutzeko. Bainan lehenengo sei hilabetekoa bete baino lehen, ezbeharrez hil zitzaigun.*

*Juan San Martinek, Euskaltzaindiaren Idazkaria, eta Rafael Ruiz Balerdik, Pintorea, Idazle eta Artista guzien izenean, Aurrezki Kutxa Probintzialari, Gabriel Arestiri omenaldi bat egiteko asmoaren berri eman zioten.*

*Delako omenaldia Gabriel Arestiren pertsonalitateak bi ikuspegitik bereziki merezi du: Alde batetik ba da garaia bere bizitza osoa Euskal Kultur Autoktonoaren zerbitzuan emana duela aitortzeko, eta beste aldetik ere, poesia berri bat gure Herrian sortuarazi duenaren oroimenez, bere sendiak Herri horren gorespina jasotzeko ordua da.*

*Omenaldi hau ekintza publiko eta liburu bat argitaratzearekin gorputzeratzen da.*

*«AGIRIAK» Gabriel Arestiren omenez eginiko liburua da. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak argitaraturik, 37 lan poetiko eta beste 32 espresibide grafiko batzen ditu; hitza eta sentipena, bolumena eta kolorearekin elkartuz; Hirukoitz honetan, ortzi urdineruntz zuzendua, ekintzaren ohorea zabaldu dezan; benetako ekintza izan bait zen Arestiren lana, Hizkuntza eta bere Herriaren zerbitzuan.*

*«AGIRIAK» liburuaren 5.000 ale hauek, Erakunde ororen liburutegietan, Ikastetxe eta euskaldunon etxeetan leku bat izanen dute.*

*5.000 oroimen hauen ereintza, kulturaren zerbitzuan bete izan zen bizitza baten omenaldi iraunkorra izatea gura dugu.*

*Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, «AGIRIAK» argitaratuz, gure Herriaren sentipenarekin bat eginik, publikoki, beronen zerbitzuan lana egin dutenen ekintzak aitortu eta goratu nahi ditu.*

# HITZAURREA

Irakurle,

Eskuartean duzun liburu hau euskarazko liburugintzan aurkitzen den hutsune nabarmena betetzera dator; hau da, gaur egungo poeten antologia orokorra. Aita Onaindiaren bilduma, *Milla Euskal-Olerki eder* (1954), aspaldikoa izatez aparte garai guzietakoen olerkiz hornitua da, eta gainera azken hogetaka urteetan sortu direnak ez ditu hartzen. Duela hamar urte, *Uhin berri-kin* (1964-1969 bilduma), belaunaldi berriaren atal hautatuak erakutsi nahi nituen. Ondorean, Ibon Sarasolak, duela bost urte, *Gerraondoko Euskal-poesiaren antologia* (1945-1964) agertu zuen, poetarik entzutetsuenez osaturik. Hala ere, esan dudan bezala, egungo poeten antologia osatuago bat falta zen, zahar eta gazte, euskal literaturan poesiak aritu izan direnen agerpena. Poesiazko liburu egile, edo hontaz aldizkarietan maiz jardun direnen lanekin behar beharrezkoa genuen antologia osatua.

Gure adiskide min genuen Gabriel Arestiren ehortze egunean, 1975eko ekainaren 7an, Derion azken agurra ematera joan ginenen artean, bere ohorez zerbait egitea pentsatu genuen. Orduko asmoetatik sortu ziren *Obra guztiak* argitaratzea, 1976an Kriselu argitaldaria hasera eman ziona, bi tomotan bere poemarik gehienak argitaratuaz, eta urte berean Angel Zelaietak beste bi libururen bidez *Gabriel Aresti* biografiazko saioa. Nere gain gelditu zen poeta guziei dei eginaz bilduma orokor bat osatzea. Ni, ordea, besteak baino alperragoa izaki, eta honek ekarri dio batez ere liburu honi argitaratze atzerapena. Baina, erru guzia ezin diot bota nere buruari, nere kiko aitoren ondorean, egin dezadan bestelako oharrik ere.

Gure lehen asmoa, gaur bizi diren poeta guziei dei eginaz, G. Aresti zenaren omenezko liburu bat osatzeaz batera gaurko poesiaren antologia agertzea zen. Usterik, antologia honentzat erarik arrazoizkoena zela gure belaunaldiko poeta garrantzitsuen gorazarrez agertzea. Deiak egin ziren, eta erantzunak poliki etorri baziren ere, ez motel; eta, hara hemen, egungo poeten AGIRIAK.

Deietan gaiak libre utzi zaizkien, ezelango loturarik gabe bakoitzak bere gogozkoa libre eskaini zezan. Honegatik, lanik gehienok, gaiaren aldetik ez dute ezer

ikustekorik Aresti zenakin. Hala ere, batzuk ordea, Aresti bera edo bere lana hartu zuten gaitzat. Libertate honek, gaiak zabaltzeaz, irakurtzeko era atseginagoa izan zezaken ustez aritu ginen. Poema guziak omenezko eskaitza honetarako eginak dira. Egin genituen deieri, bat edo bestek ez zion erantzunik eman eta bizpahiruk erantzun ziguten, esanez, aspaldi delarik poesiagintza utzia zutela eta arrazoi honegatik ezin zutela ezer bidali. Gure iduriz, adiskide eta poeta hilaren omenerako deia izan ez balitz, ezina izango genuen horrenbeste orijinal biltzea, eta alde hontatik ongi hornitua gelditu den ustean gara. Are gehiago, hainbestek erantzuteak bere eragozpenak ekarri zizkigun, zeren lanon ugaritasunak berakin eskatzen bai zigun uste genuen baino liburu handiagoa ateratzea. Egoera honek, argitalpen ideiak berritzea bultzatu ginuzen, liburu handi eta egoki bat argitaratzeko. Baina, ideia honek, bere aldetik, edergarriak ere eskatzen zituen eta orduan abiatu ginen artistei ere dei egitera. Eta, artistei egindako deia ez zen izan olerkarietara egin genien neurri berekoa. G. Aresti olerkaria zenez, literatura mota honetan euskaraz aritu diren guziei deia egin bagenien ere, ezin zen egin gauza bera artistekin. Honetarako hautapenezko zerrenda bat osatu genuen E. Kortadik eta biok, zehaztasun handirik gabeko zerrenda, eta deitu genituen gehienak erantzun ziguten.

Lanak aurrera, gehituaz eta edertuaz, argitaratzeko eragozpen handiagoak sortu zizkigun. Euskaldun irakurleagoa hain urri izanik, inprimaketa laburrak argitalpena gehiegi garestitzen zuelako. Orduan, diru-etxe baten laguntzaz argitaratzea ikusten genuen soluzio bakarra; eta Gabriel Arestiri Hiztegi arauemailea egitea eskatu zion etxera jo genuen (gaur, honako hiztegi hau I. Sarasolaren esku utzia da), Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialera. Gainera, alargunari laguntzeko egile eskubideetatik diru zerbait atera nahi genuen eta hau ere ezin genezakean 'ortu holako etxe baten laguntza gabe. Jestio kontu guzi hoiak denbora aurrera eramanez, baina denborak baino gehiago balio zuen gure poeta bikaina zenari gauza egoki bat eskaintzea eta gure ahaleginok hor joan ziren ongi merezia zuen ospearen alde. Liburu eder honek bere oroitzapena hobeto gordeko bai du.

— — —

*Lur honetan  
ehortziko naute  
Ohore hau ez daute ukatuko  
gizonek.*

Behin holako bertso librean mintzatu zen euskal poeta hil zaigu, berrogetabi urte bete baino lehen.

Aresti, denen gainez edo ezer baino lehen, poeta handi bat zen, mundu hobeago baten alde sufritzen zuena. Eta trantze honetan, adiskidearen doluminez, poetaren hitzez esan nezake: «Neure dolorea bularraren lezean».

Bilbon jaioa, 1933ko urriaren 14an. Hamasei urtekin hasi zen euskaraz ikasten eta hogetabat zituenerako hasi zen euskaraz idazten Guatemalako «Euzko-gogo»

aldizkarian. Ogibidez profesor merkantil zen, eta 1957an Euskaltzaindiko laguntzaile izendatua izan zen. Egan, Euskera, Olerti, Zeruko Argia eta Anaitasuna aldizkarietan idatzi izan zuen euskaraz.

*Maldan behera* (1960), *Harri eta Herri* (1964), *Euskal Harria* (1967), eta *Harritzko herri hau* (1970) poesia liburuen egilea.

Gainera, Kriselu argitaldariaren sortzaile eta egun argitaldari berri honen zuzendarietako bat.

Euskal poesia berriaren eragilerik handiena, batez ere *Harri eta Herri* liburuko bertso libre eta sozial gaietatik hasita. Antzerkian ere, era berritzearen alde ahaleginak egin zituenetako bat. Jaso zituen saririk aipagarrienak: poesian «Loramendi» izenekoa 1959, «Orixe» 1963, «Lizardi» 1966 eta «J. M. Iparragirre» 1968; antzerkian «T. Alzaga» 1961.

Lanok ikusi besterik ez dugu langile borrokatua zela igartzeko. Baina, denon gainez, esan dugunez, poeta handi bat. Konformagaitza. Euskararekin nekaturik jabetu zenez, gure herkideok ardura gehiagoz bide bera har zezaten ahalegintzen zena. Hizkuntza, herria, eta batez ere langileria zituen maite eta beregatik edo beren alde sufritzen zuena kantatzen zuen erarik errazenean adiaraziz:

*Gauza zelaiak  
errezak  
edonork konprenitzekoak.*

Eta era honen bidez sentiaraziko zituen bazterrak, eta poeta berriak sortuko ziren hor-hemen gure hizkuntza zaharrari gogoia herritzeko.

*Kantabriako itsasoaren kostaldera joan nintzen,  
eta Izaroren aurrean negarrez,  
nire poemaren urrezko orriak  
entregatu nizkien  
uhineri,  
hobe baita itorik hil,  
goseak baino.*

Mundu hontako gehienak bezala lasai bizi zitekean ezerekin arduratu gabe; baina ezin, justiziazko mundu hobe baten egarriak zeraman eta «...mundu honetan isuri den odolaren espilu» nahi zuen izan. Inoiz, poetak, holako galdeak egiten zizkion bere buruari:

*Zergatik metitu ote naiz  
halako enplego txar batean?  
Zergatik sartu ote nituen  
sudurrak  
hain kirats txarreko  
zer-egin honetan?*

*Ez nintzen ni ederki bizi  
Bilboko hirian,  
gaztelaniaz,  
hispanidadean?  
Baina ez.  
Nire leinuaren ezagugarria da.*

Poetak, emaztea eta hiru alaba uzten ditu, bere sufrimenduzko poesian maiz presente aurkituko ditugunak. Bere azken poema liburuaren bertso batean hara nola azaltzen zituen herrianganako maitasun etsipendua eta familiaganako lotura:

*Inor ez da profeta  
bere mendean.  
Berriz etorri naiz  
pentsamendura,  
eta andre alabarik ez banu,  
pozik  
hilen  
nintzake,  
ene esanak kontsidera litzan  
euskal herriak.*

Poetaren bertso asko eta asko kantu bihurtu dira gaurko gazteen ahoetan. Eta, une hoietan, hemendik aurrera, errusinola bezala ari diren kantariak ez dezatela atertu bere hitzik, zeren gogoko izanen zuen hotsa.

*Errusinolaren kantuak  
nire arima  
bakez  
betetzen du.*

Azkenean, urte bete baino gehiagoan sufritu behar izan duen eritasunaren ondotik, betiko bakea aurkitu du.

*Hiltzeko edo ez hiltzeko  
beti geratzen baitzaio  
gizonari  
esperantzaren  
bat.*

Esanaz bukatzen zuen bere azken poema liburua, *Harrizko herri hau*. Bere penak, gogoz nahi zuen bakea aurkituko dute heriotzaren barruan. Bego atsedenean (1).

---

(1) Bigarren parte hau, Gabriel Aresti poetaren heriotza orduan, Donostiako *Hoja del Lunes* astekarian 1975eko ekainaren 9an argitaratu nuenetik hartua da.



Azken boladan asko idatzi da Arestiz. Bi liburu handitan bere poemak argitaratzeaz, gure poeta diskutigarri baina handi honen hotsa zalbadu da Euskal-Herrietan. Ez nuke esango aburu guziak ez direla izan bere obraren ongarri, baina, zalantzarik gabe, gure poeta hau lehen baino zutituago, lerdinago eta sakonago jarri da. A. Zelaietaren biografia bera ere lagungarri izan du.

Hiritar poesiagintzan, hala gizarte hauziaz, Lauaxetak beste inork baino lehen idatzi zuen euskal-literaturan. Baina, hala ere, Aresti altxatzen zaigu era horren pioner. Lauaxetak, euskal-literatura garaiko modetara eramateko era askotako saiaerak egin zituen, baina Arestik gogotik ekin zion bere barne muinetatik sentitzen zuenez, sufritzen zuenez.

G. Arestik, *Maldan behera* baino lehen ekin zion bere bide berezi bati. Bere izategoak markatu zion olerkari bidea, eta inguruan sumatzen zuen girotik bere barne kezkatian egosirik irauliaz jardun zen. Holako gogoak bultzaturik zetorrenak adiarazpen tresnak hartu zituen eta lanerako jakintzaz hornitu zen. Ez zen bat batean sortutako poeta. Eta Euzko-gogoan argitaratutako Godalet-dantza (1954), bere hizlaxozko oharrez, hor dugu lekuko, gure poetaren egunsentian. Shakespeare-ren hamalaukoek emango zion bertsoak taxuratzeko irakaspena, Krutwig-ek kultur euskararen egarria piztuko zion eta J. Mirandek hizkuntza libreagoz hitzen balioa agertu.

Gabriel ez dakit zerk eraman zuen bere poesi tresnatzat euskara hartzera. Gazteleraz errazago zuen, gurasoegandikako hizkuntza zuenez. Baina hau argitzeko ere kaku anitz badugu bere poemagintzaren barna. Mespresiatuak, baztertuak, marjinatuak dagoenaren alde maiz, maizegi edo kasik beti, agertuko zaigu. Marjinazio horrekin bat eginik aurkituko dugu, bere buru marjinatuaz oinaze mingotsak leporatuaz. Gure herri honen egoera lazarriaren bidegurutzean noraezean, eta era berean gure gizon izatearen esistentzia larriaren aurrean. Gainera, ber berak zionez, «Bilbao deritzan infernu honetan...». Prolema larrietatik irten ezinik, izatea bera ere aski problematikoa aurkitzen zuelarik, ez da gauza erraza irtenbiderik aurkitzea. Holakoa zuen poetak izatearen malura. Besterik eskatzea, alperrikakoa zen.

Sarasolak, bere hitzaurre jakingarrian (*Obra guztiak*-ren hitzaurrean), gizandien eroritze eta ehortzez Arestik zeraman larri-mina agertuko digu *Maldan behera*-ri egiten dizkion aburuz. Gero, baita ere, bide urratze haiek utzirik eta gizon zapalduekin bere burua bat eginik, justiziaren aldeko borrokara jotzen, hizkuntza gihartsu eta zuzenago batekin. Bertako esaldi eta humanismoak, 1963an, benetan liluratu ninduana, eta *Maldan behera* deritzanari ezer kentzeke, *Harri eta Herri* goraiatu nuen eta dut. Nik orduan esan nuenaren haina Mikel Lasak bere iritzietan agertuko zuenagatik. Honegatik, gaur, euskara edozeinentzako tresna dugu. Eta honekin ez dut esan nahi gizon bakar baten eragina zenik eta gizon hori G. Aresti soilik. Baizik, giro baten inguruko seme eta inguru horren adierazpengarriena berau delako.

Gure poeta honen bi era nagusiak ordea, hor aurkitu genezazke, *Maldan behera* eta *Herri eta Harri* liburuetan. Hala ere, gainerako guzia ez da baztergarri, ezta gutiagorik ere. Ondorengoak bigarrenaren jarraipenez datoz, eta azken poe-

man, *Azken Harria* deritzanetan, gora behera handiak nabariko ditu, maizegi min-  
kor eta irainkor. Hilobira eramango zuen gaixoaldiaren lekuko.

Batzuengandik entzuna dut bere poemagintzaren topea jo zuela. Baina nik ez dut holako usterik. Oraindik gaztea zen, sortzaile ahalmenen jabe gainera, eta denborarekin aurkituko zuen bide berririk eta molde berririk ekintza berri baten barna, beste poeta askorekin gertatu izan den bezala. Hori bai, aitortu beharrezkoa deritzat, krisisean aurkitzen zela eta bere azken poemak ez zirela 1958-1964 urteetan egin zituenen mailakoak.

Arestiren poesiak askok uste baino erresuma zabalagoak hartzen ditu, gizona-  
ren esistentziaren larriminezko kezkatik gizarte hauziak zehar gizon apal eta lan-  
gileriaren eskubideen borrokara artekoak. Izatearen gogoetazkoak ez dute izan  
gizarte borrokakoak hainako harrerarik, gizonok barne-gogoetazko saioeri gutiegi  
emanak garez, baina Aresti sakonki aztertu nahi duenak bi eratako munduok  
gogoan izan beharko ditu. Sarasolak aski ongi erakutsi digu hau, eta oraindik ere  
zirrikitu asko, ilunbeetan ere argi mehar asko eta sigilurik ere anitz dugu Arestiren  
poemetan zehar.

Berekiko kontradizioak izango zituen, baina besteentzat ere kontradiziorik  
aski utzi du.

Aitortu beharrezkoa dut kanta-berrigintza bere poesiak bultzatu zuela. Baina,  
kanta berrietan ere, maiz, borrokazkoak soilik hartzen dituzte, bestelakorik ez  
balu bezala. Eskergarria da G. Arestiren omenez Oskorri taldeak aterea duen LP  
diska, doinu oso ongi jantzia eta Natxo de Felipek ederki kantatua. Baina, hemen  
ere, joera batekoak soilik hautatu dituzte.

Kontradizioa berriz, gure herrian bizi bizirik dagoen errealitatea besterik  
ez baita. Beraz, har poetaren muinetik, azaleko gauzak alboratuaz.



Gabriel Aresti langile izugarria zen eta eten gabe jardun zen euskal-literaturaren  
alorrean.

Esan dugunez, antzerkiaren bide berriak urratzen ahalegindu zen, eta haipatu  
ditugun poesia lanez aparte gogoangarriak ditugu honako antzerki hauek: *Mugal-  
deko herrian eginikako Tobera* (1961), *Justizia txistulari* (1965), *Etxe aberatseko  
seme galdua eta Maria Madalenaren seme santua* (1963), *...eta gure heriotzeko orduan*  
(1964)—laurak Egan aldizkarian argitaratuak eta gerostik, laurok, R. Saizarbitoriak  
*Lau teatro Arestiar* deritzan bilduman argitaratu zituen, 1973. urtean, hitzaurre  
batekin—, horiez gainera beste bosgarren bat ere bai, *Beste mundukoak eta zoro bat*  
(1969an «Euskal Elerti 69» bilduma liburuan, 329-402 orr.). Gainera, beste lan berezi  
batzuen artean *Malgizonen abenturismoa* (1972), *Mundu-munduan* (1965) eta *Hiztegi  
tipia* (1973) A-tik D-ra arteko hiztegia.

Azterketa lanik sakonenen arteko zituen «Flexiones verbales empleadas por  
Pedro de Axular en su obra Gero», Principe de Viana Mintegiaren Fontes Linguae

Vasconum-en 8. zenbakian (1971), «Flexiones verbales empleadas por Leizarraga de Briscous» eta «Léxico empleado por Leizarraga de Briscous» Fontes Linguae Vasconum aldizkari berean 11 eta 13. zenbakietan (1972-1973).

Gainera, beste honako lan hauek euskaratu zituen: B. Brecht-en *Xixtima zoriontsu bat* (1968an Bilbon Kriselu taldeak aurkeztua), T. Meabe-ren *14 alegia* (1968an, Meaberen gaztelerazko orijinalaren ondotik bere euskal itzulpena eta baita ere R. Salvat eta X. Alonso Montero-ren katalanez eta galegozko itzulpenez), F. Marcos da Portela-ren *Nekazariaren dotrina* (1969), Nazim Hikmet-en *Lau gar-tzelak* (1971), F. García Lorca-ren *Seis poemas galegos* (1974an, lau hizkuntzaz Madrid-en argitaratu), Castelao-ren *Nós* (1974an, hau ere Madrid-en lau hizkun-tzaz argitaratua) eta V. Paz-Andrade-ren *Pranto matricial* (1975ean Coruñan argita-ratua bost hizkuntzatan, portugesa gehituaz). (2).

Azkenez, Asterix-en liburuak itzultzen ari zen, lau kasik bukatu utzi zituen eta 1976an argitaratuak dira, Jesus Mari Arrietak osaturik. Eta, X. Kintanaren laguntzarekin *Batasunaren kutxa* (1970) deritzan liburua gertatu zuen.

Lastima izan zen holako poeta eta holako langile bizkorra hain gazterik hiltzea. Bere heriotzarekin, euskal-literaturak, gure gizaldiko idazlerik hoberene-tako bat galdu zuen. Omenezko liburu honen bidez, ongi merezia zuenez, euskal poetak eta artistak bere izena goretsi nahi dute eta hemen dituzu AGIRIAK.

*Juan San Martín*

(2) Gai honetaz anitz xehetasun eman nuen «Gabriel Arestik galegotik egin zituen itzulpenak» deritzan artiku-luan. Ikus *Gogoz* liburuaren 356 - 359 orrialdeetan. Aurrezki Kutxa Probintzial honek aurtan argitaratua.

# POESIEN AURKIBIDEA

23	<i>A. AGIRREAZALDEGI</i>	<i>Non dago?</i>
26	<i>A. AGIRREAZALDEGI</i>	<i>Poeta frustatua</i>
29	<i>B. ALBIZU</i>	<i>Akelarre biurtu ote?</i>
30	<i>N. ALZOLA</i>	<i>Kantuz eta itxaropenez</i>
35	<i>A. ARANBURU</i>	<i>Ene atarian</i>
39	<i>M. ARREGI</i>	<i>Sekretu ezkutuen...</i>
43	<i>F. ARTOLA (Bordari)</i>	<i>Oroitzapen aro</i>
49	<i>J. A. ARZE (Harzabal)</i>	<i>Olerkari bat hestuasunean</i>
51	<i>B. AURRE APRAIZ (Aurraitz)</i>	<i>Illuntze urratua</i>
59	<i>J. AZURMENDI</i>	<i>Berrogei urte honetan</i>
61	<i>X. AZURMENDI</i>	<i>Poeta mutua</i>
65	<i>A. BILBAO</i>	<i>Oroimenez</i>
68	<i>M. ERDOZAINCY-ETCHART</i>	<i>Amets bat eta beste...</i>
74	<i>E. ERKIAGA</i>	<i>Kanpaiak ere</i>
83	<i>M. ERTZILLA</i>	<i>Gaua</i>
85	<i>E. ETXAMENDI</i>	<i>Nor dira hola</i>
89	<i>J. A. ETXEBARRIA (Dirauket)</i>	<i>Aresti euskal argiña</i>
90	<i>P. ETXEBERRIA, S. I.</i>	<i>Ravel</i>
95	<i>B. GANDIAGA</i>	<i>Kalean...</i>
98	<i>B. GANDIAGA</i>	<i>G. Arestiren aitormenetan</i>
102	<i>J. I. GOIKOETXEA (Gaztelu)</i>	<i>Hire gozoa, hire nahigabea...</i>
107	<i>J. I. GOIKOETXEA (Gaztelu)</i>	<i>Gezurra dirudi</i>
111	<i>J. I. GOIKOETXEA (Gaztelu)</i>	<i>Herrian odola</i>
113	<i>IRATZEDER (X. Diharce)</i>	<i>Egun beltzak...</i>
117	<i>J. M. IRIGOYEN ARANBERRI</i>	<i>Altza edo herri baten heriotza</i>
123	<i>ITSUBIA (G. Mujika)</i>	<i>Sua erretzen</i>
126	<i>M. ITURBE BALDA</i>	<i>Gabriel Arestiren omenez</i>
130	<i>P. IZTUETA</i>	<i>Profezia guztien kontra</i>
132	<i>J. KEREXETA</i>	<i>Zorion-billa</i>
135	<i>E. KORTADI</i>	<i>Konzeptual poemak</i>
138	<i>D. LANDART</i>	<i>Andre handi...</i>
140	<i>G. LANTZIRI (G. Alfaro)</i>	<i>Ez, etzira hilko</i>
143	<i>A. LASA</i>	<i>Hitz nahastuak</i>
145	<i>M. LASA</i>	<i>Hemen datza Popeye</i>
146	<i>J. M. LEKUONA</i>	<i>Ene eskua</i>
151	<i>X. LETE</i>	<i>Negu hotz batean</i>
155	<i>B. MUJIKA</i>	<i>Gausentian sortu zait kezka</i>

156	<i>A. MUNIATEGI</i>	<i>Hil da...</i>
159	<i>S. MUNIATEGI</i>	<i>Aresti gogoratuz</i>
165	<i>L. M. MUXIKA</i>	<i>Xirla desestalia</i>
170	<i>S. ONAINDIA</i>	<i>Erori intzan</i>
174	<i>OTSALAR (J. San Martin)</i>	<i>Gabriel Aresti</i>
175	<i>M. PAGOLA</i>	<i>Gabriel Aresti-ri orroitzez</i>
176	<i>R. SAIZARBITORIA</i>	<i>Honez gero</i>
179	<i>I. SARASOLA</i>	<i>Eztebe paredoian</i>
185	<i>M. TEJERIA EIZMENDI</i>	<i>Haize agirre</i>
186	<i>G. TRINTXERPE (P. Zabaleta)</i>	<i>Kaleko umea</i>
191	<i>P. URKIZU</i>	<i>Harrizko hamalaukoa</i>
		<i>G. Arestiri</i>
192	<i>M. ZARATE</i>	<i>Pentsamentu txarra</i>
194	<i>M. ZARATE</i>	<i>Euskal literaturaren arrokeria</i>
197	<i>I. ZUBIZARRETA</i>	<i>Gabriel Aresti</i>
198	<i>J. ZULAIKA</i>	<i>Eguzki bat imajinatzen</i>

# EDERGARRIEN AURKIBIDEA

21	<i>J. G. DE AGUIRRE</i>
27	<i>J. J. AQUERRETA</i>
33	<i>J. AROCENA</i>
37	<i>N. BASTERRECHEA</i>
41	<i>F. BEORLEGUI</i>
47	<i>F. BERISTAIN</i>
53	<i>C. BIZKARRONDO</i>
57	<i>D. BLANCO</i>
63	<i>E. CHILLIDA</i>
69	<i>J. EGAÑA</i>
75	<i>J. GARRO</i>
81	<i>J. L. GOENAGA</i>
87	<i>T. HERNANDEZ MENDIZABAL</i>
93	<i>A. IBARROLA</i>
99	<i>S. IÑURRIETA</i>
105	<i>I. LARRAÑAGA</i>
109	<i>V. LARREA</i>
115	<i>R. MENDIBURU</i>
121	<i>J. MIEG</i>
127	<i>F. MIRANTES</i>
133-141	<i>A. OLARIAGA</i>
147	<i>C. ORTIZ DE ELGUEA</i>
153	<i>J. DE OTEIZA</i>
157	<i>RUIZ BALERDI</i>
163	<i>P. SAINT-ESTEBEN</i>
167	<i>A. TAPIA</i>
171	<i>J. M. TELLERIA</i>
177	<i>D. TXOPITEA</i>
183	<i>J. UGARTE</i>
189	<i>R. UGARTE DE Z.</i>
195	<i>J. URQUIJO</i>
199	<i>J. L. ZUMETA</i>



*La Seda alpina*

ALBERTO AGIRREAZALDEGI

# NON DAGO?

Hutsa  
ximplea  
zirkulu kuadratua  
definigabea.  
Formulen jakituna  
gizon  
    formatua  
haize baretsuan  
    hezitua  
gurasoen  
logikaz  
    hasitua  
            dantzatua  
                    sakondua.  
Eguneroko errosarioan  
letania berdina  
san beti  
    ahaztu  
    isilik  
    kontuz  
    poliki  
    jaberik  
horrela santu  
pila eta  
    amabirjina.



Itsasoa  
haserre ala barea  
arraien atmosfera  
    urdin  
                    gorri  
                            naiz berdea,  
  
ur  
latz ala fin  
dena  
zitzaidan berdin.  
Postulatu  
    teorema  
                    zenbaki  
                            eskema  
hau zen BAKARRIK  
(gau hura heldu zen arte)  
niretzat  
    poema.  
Gau hartan  
ametsetan...  
...desertuan  
harea finaren kolpeen  
bizkar,  
  
eguzkiaren ardo gogorraren  
soinua dantzatzuz,  
Kantauriko ur tantoaren  
    biguna  
    farrea  
    muxua  
    muina  
  
nire gogo  
adintsuan  
nuen.  
Gau larria  
    odoltsua  
    gorria  
amets idatziak  
zidan urratu

eta  
infitoko  
izar ttipitik  
argia luzatu.  
Nire  
eztarri menperatutik  
iheska  
atera zen ? hau:  
    Non  
    dago  
    HARRIzko HERRIaren  
    kantera ?

## POETA FRUSTATUA

Arnasaren doinuak esaten dit

BAKARRIK

nagola.

LUR

handi honetan

itotzera heldu da

nire begirada.

EZ

dago ikustekorik;

aldaketaren orriak

lehertu dira, udazkenaren

BEHARRIK

gabe.

GIZONA

ezerezaren lokatzartean sartu denetik

EZER EZ

bihurtu da.

EMAKUMEA

emanzipatua dearretik

hemen zihatua izatera

INOIZ

EZ

da heldu.

POETA

neurri gabeko hitz bihurtetik

zilegiko bidera joan da;

zikiro baten antz

BARRABILGABE


ikusi denean,

hauxe idatzi du:

poeta ez

NAIZELA

aitortzen dut.



*BALENDIÑE ALBIZU*

# AKELARRE BIURTU OTE?

Larraitz, 1971

Nora zoaz Amagoia ?  
Larraitz mendira!  
Illargi betea degu ta...  
nere semeak an  
bilduko dira.  
Ez naute ikusiko,  
beren biotzetan  
naiz sartuko,  
aztuko ez duten  
gau zoragarri ontan  
bear duten zoriona emateko.  
Beren abesti  
t'eresi eztitsuetan  
naute sentituko,  
gaurtik aurrera  
illargi betean  
mendi gallurrera  
dira igoko,  
eunkada urteetan  
lozorrotik gaur  
esnatu diralako!  
Beren biotzak  
aundi egin dira  
Amagoiak...  
Ez ditu utziko!  
Bereak izango dira  
emendik aurrera betiko.

NIKOLAS ALZOLA

KANTUZ  
ETA  
ITXAROPENEZ

1975/VII/3  
errioxako aritzeta-n  
M-B. A. G.  
«markue»

k  
u  
l  
t  
u  
r  
a zaharrak bide berriaz aurrerantz' eroango gaitu  
katigatuta gelditu barik askatasunez jarraitu

sustrai zaharretik bide berriek zabal zabalik ditugu  
zer izan garen ahaztu bagarik  
gaurko egunez  
jabetu

mundu guztiaz parte hartzeko ez dugu bildurrik behar  
mundu orokortarrenak gare ahaztu gabe nor garean

eskuak eta euskaldun bihotzak elgarren zintzotasunez.

s  
k  
u  
a  
k eta euskaldun bihotzak elgarren zintzotasunez

d  
ee  
n n  
o o  
k k bat-era joan  
bat-era joan gaitezen  
benetako maitasunez  
benetako maitasunez

l g n o a i l r e a e n a a t z t a r i u g n n  
a u n r u m t a n i a u k t i e

z b i b r r i b t  
u i e i a

e i d z g n h z u t z - r m s l a e  
- g n e a u i k n - a i a a b t z n

b  
i  
h  
o

tz-zabalez gaur eskatzen dut euskaldun anai guztiei  
bihotz zabalez bihotz apur bat batzuei eta bestiei







ANTTON ARANBURU


## ENE ATARIAN

Ni naiz ni  
eta hemen naiz  
eta ni naiz Lur.  
Euriaren freskotasunak busti  
haizearen musuak ezti  
gizonen oinek zapaldu lur bizia  
lur hatsartua;  
neke, izerdi eta oinaze ororen sehaska  
nire anaiek ahoratzen duten egunoroko ogia  
irrifar orlegi bat zeruko urdinari itsatsia.

Ni naiz ni  
eta hemen naiz  
eta ni naiz Ur.  
Amets ororen itokin  
itxaropen eta desio zaharren jario  
aho-eztarri lehor eta zintzur urratuen intz  
ur erori  
euri  
gizaldiz gizaldi bidean zehar  
gure mendietatik behera  
amildutako negar isila  
izate bereizi baten oihu busti  
eguneroko burruka baten oihartzun marmartia.

Ni naiz ni  
eta hemen naiz  
eta ni naiz Su.  
Izotz-ondoko egunek sorturiko lore gorri  
eguzkiaren poema  
bihotzaren maitasun-kanta zaharra  
amodio eta nahitasun ororen habi epel;  
su  
sukartua  
su  
kixkalia,  
jainkoek ere ezin itzalia;  
gero  
bero baten  
labe  
guri-guria.

Ni naiz ni  
eta hemen naiz  
eta ni naiz Haize.  
Jakintzaren zelaitik ihes eginiko ipuin hegalari  
giza-arnasa baten aurreku dardarti  
galdu ezinezko kontzientziaren xistu beti;  
ezin harrapatutako aurpegia  
ifarretik hegora  
sortaldetik sartaldera  
zabaltzen den egia;  
haize  
haizetsu  
zuhaitz-hostoen irri eta oinaze  
atzoko eta biharko denbora arrotzen orraze.



*nestor basterrechea 76*

MIKEL ARREGI

## SEKRETU EZKUTUEN...

Sekretu ezkutuen  
pasio izengabeen  
gorde-leku honetan  
gozaldien algara  
bihurtzen da ikara.

Ikara beldurtiak  
hatzapar itsusiez  
estrata zahar honetan  
eskutik narama;  
beldur ikaratia  
dut betiko ama.

Argiak itzalita  
ikusi beharra  
pozik kantatuarren  
egin behar negarra  
hegan ezin ibili  
izanik lurtarra.

Esperantza merkearen  
zagiei darien  
etorkizun tantoek  
ezin dezakete  
hondorik gabeko  
itsaso hau bete.

Halabeharrezko zipriztin galduak  
ezin mantentzen  
ene antsia mugagabetien errota.  
Argi-izpi doi eta motelek  
ezin pizten  
ene desio ezkutu guztien  
ezkutuko ezkutapena,  
ene begi lausotuen  
betiko etsipena.

Denborak ozkatzen nau  
gazte-irrifarra ahulduz  
berez handiak diren  
olatuaz handituz  
zuhaitz berdea zena  
bere haizkoraz soilduz,  
arnasa erdi-itoak  
eztarritik zintzilik  
mihingain luzea kanpora  
hondakinen mahaiko  
ogi-apurrak bilduz,  
berezko desioak,  
gazte izatearen  
azkeneko jarioak,  
oroitzapen ilunen  
laberinto beltzean  
tantoka tantoka  
ixuri eta galtzen  
diren bitartean.



## ORROITZAPEN ARO

Arestian,  
berria ikasi.  
Aresti il da...

Ar beza atsedeen  
harrizko olerkariak.  
Goian bego adiskidea!

Lagun:  
Nere goraintziak  
otoitz mezua luke,  
zorraren truke.  
Bearrean baliatuko  
al zera; ori nai nuke.

Batean,  
erromantikoa naizela  
zuk esan;  
eta asmatu !!

.....

Arako ari talka artan,  
AMA'ren etxean  
Aloñan,  
lagun-berri giñan.



Bi aritu ziran,  
beti norbait bear ta,  
mingarri ta penagarri,  
gogor topeka.  
Oroitzen al zera ?

Zu, euskeldun berria,  
adorez betea,  
amets-uts etorria.  
Bhurri eta minkor  
Oldartsu ta eraginkor  
Jator!  
zure esanetan.

Gero or eta emen,  
ezin egona nabarmen,  
Ontzi berean arraunlari.

Etziñan orekan  
egoteko kastakoa.  
Ez arraiepola!

Sutauts bikaiña zu  
dunbots egiteko!  
Beti aspergaitz  
zure ildoan langille.

Basa-larra lez aginka,  
sagar-makatza  
bezela garratza,  
minkatza.

O! euskaldunaren sortea!  
Nik zuri  
Zuk neri  
Oker zabiltz  
Ori ez da bidea!

Zuk zurea  
Nik nerea.

Besteak Aloñan  
gu biok Bedoñan  
Topeka.  
Arrikada bizian arrika.

Ostera,  
zure Fede-Harria  
garaitu.  
Kristauki ninduzun  
barkatu.  
Ta gure adiskidantza  
sendotua gelditu.

Zu, zanpatzaille galanta,  
biotz-handikoa  
ziñan agertu!

Nola ez nik zuri eskertu!

Esan gaitz bazait ere  
gazteak zureganatu dituzu;  
ara or zure lanaren indarra,  
zure senaren garra.

Harria'rekin eraiki  
duzu olerkia,  
Zuk itxura aldatu  
onen giroa,  
illun zegoana argitu  
argi zegoana illundu.  
Gauza bitxia!

Eta,  
O! malurraren malurra  
Euskaldun olerkari jator lez.  
gazte eraman zaitu Bere ondora!

Zer egiñ betean,  
eskuak orean  
eta joan egin zera!



Agur! laister arte.

Emen, arritsu utzi duzu guzia.  
Harria ez da txarra egiteko bidea!  
Baliatzen ikasiko bagenu,  
O! nolako zoria.

Elkar barkatzen eta eramaten  
ikasiko bagenu,  
askozaz obea!

Pakea egiteko  
izan dedilla zure nekea;  
zure sufrikarioa,  
ta eman duzun bizia.

Aitaren etxean zaude  
Pausa-Leku egokia.  
Ukango al dut,  
nik ere zuk bezela,  
bertan tokia.



Berystain

# OLERKARI BAT HESTUASUNEAN

ordurako mendiaren gainean ni  
orpoetara jautsiak  
gosariaren indarrak,  
flakiak jota  
baserri batera jo nuen  
zerbait bizigarriren bila:

- «kax, kax, kax»
- «nor zaitugu?»
- «mendiaren ederrak eta haizearen garbiak bakarrik ase ez duen poeta bat»
- «zeeeeer?»
- «goseak amorratzen dagoen zakur bat»

hiru

hiru ahizpa ziren...  
eta hirurak lotsatiak

ama mezetan, aita tabernan  
eta gu sukaldera

zeukatenetik dena emateko prest zeuden

eman zidaten  
txingarra eta arraultzak  
eman zidaten  
gazta eta ardoa  
eman zidaten  
kafea  
eman zidaten...

eta ez ziren gazteak

beren hankatarteko hilobietan e  
hortziko ninduten zoro haiek bal  
din eta aita hil eta handik hama  
ika hilabetera jaiotzen diren u  
me postumo hoietako bat izan ez  
banintzen

## ILLUNTZE URRATUA

Piñudi baltzen erdian nago,  
gogapenen zidorrez maratuta:  
Illun inguruak,  
neure gogoa baizen illun...

\* \* \*

Gizonak gizon-ilten diarduen  
mundu ankerra!  
Dirua ta guzurra,  
ikusi-eziña ta gorrotoa...  
Gizarte apurtua!

Oletako lanabes-otsik ez dantzut,  
ez eta urietako  
gizarte-burruka larririk bere;  
baiña,  
basoraiño be eldu yaku Erioa:  
Erio gogorra!  
Sabel bagako Erioa.  
Eta ixilik eta laiotz dago, guztian,  
odolezko illuntze urratuan:  
Itzeltasunaren ota dantzut,  
bakarrik, zoli,  
zuzentasunari deiez...

Erri zuzituaren seme nekatua!  
Negar dagi erriak,  
jazoeren larrain zulatuan.

Eta,  
zugaizpean datza odola.  
Erru begako odol gardenena.  
Zuzentasun-billa ebillanaren odol gogortua.  
Arkondara zulatua,  
oiñetako urratuak eta,  
jerse odoldua.

Erioak ez dauka biotzik,  
ez eta galtzaiduak be errukirik:  
Edenduta dago aroa.

Illotza,  
ixiltasuna,  
negarra...  
Parkamen bagako gorrotoaren lerrena!

Neure gogoa baizen goibel dagoz egunak,  
erru bagakoen bizitza autsian,  
naspildutako aro urratuan.

Zer egin ?  
Nora joka ?  
Zoritxarrak egin dan egitekoa:  
Etxe-bizitzak erdi-utsik,  
itun dantzudaz abereen morrosa  
ta orroe tamalak,  
eta,  
zapart dagist biotzak  
odolaren eragiñaz.

Loak ez dau baretasunik,  
oiñazetuen gomuta larriaz.  
Txakurren alaru apurtuak iruntzi dabe  
illuntzeko eresia.





C. Bizkarrondo

Ixilla.  
Eriotzea!  
Erri apurtua...  
Zuzentasunaren aldeko gazte eraildua!

Erostea,  
negarra,  
arpegi kadenak,  
ixiltasuna...  
Nun gizonaren askatasuna ?

Ta auzoen atsekabeen  
ba-doaz egunak,  
eta ba-datoz gabak:  
Izar bagarik,  
itxaropen bagarik,  
esituen pentsamentuz,  
beste gogorapen barik:  
Bizitzearen aria urraturik...  
Burdiñazko ateak ez dauke, baiña,  
errukirik.  
Eta aragi urratuen oiñaze  
ta azur apurtuen karraskadak  
ormatzar ezkoek irusten ditue, alperrik.

Mutil gaxoa!  
Erio ankerraren opari zauritua!

Guztia dago itzel  
amurruz eroan eta  
bertan-bera jaurtiriko  
illotzaren didarrerri adi,  
ixilpean dabillan  
zuzentasunaren deiari...

Illetaz dira basoak,  
illuntzeko bakartasun itzelean,  
piñudi baltzen illun sorgiñean.

Eta erru bagako odolaren didarrak dira,  
gau-ertzaren aro odolduan.

Eta  
Balbe'ren aiotzak dis-dis dagi, illunpean,  
biotz bagakoen argi zikinduaren bultzadaz.

\* \* \*

Piñudi baltzen erdian nago,  
gogapenen zidorrez maratuta:  
Illun eta itzel inguruak,  
neure gogoa baizen illun...



JOXE AZURMENDI

## BERROGEI URTE HONETAN

Hator, lagun. Konta izkiguk  
umetako gerra kontu haiek.  
Urbasa, Artxanda, Santoina.  
Konta zaiguk zenbait hil ziren,  
nola hil ziren.  
Nondik nora ibili haiz hainbeste denbora.  
Non utzi dituk hire lagunak.

Hator. Konta izkiguk  
etxean isila sortzen duten  
aspaldiko gauza luze haiek.

Hator harmarik eta bildurrik gabe,  
konta iguk berriro nola hil ziren anaiak  
anaiak hilda, aberriaren alde  
edo Kristoren izenean  
edo gerrara bialduta.  
Nola anaia bakoitzean aberri bat  
isilik gelditzen zen mendian.  
Bildur isil bat nola hiltzen zen  
hiltzeko bildur zen zemearen azkeneko dardaran,  
edozein postura itxuragabetan erorita.  
Nola oroitzen zinaten etxearekin.

Zenbait aldiz joan haiz harrez gero  
Galdakaora, ez dagoena ikustera.

Nola hiltzen ziren,  
kexatu gabe, ezer galdetu gabe,  
galduta zekiten gerra batetan,  
egun batek bestea zekarrelako bakarrik.

Dena bukatuta zegoen aspaldian eta ezin zuen bukatu.  
Gero Burgosera, zazpi urte.  
Eta gero  
semeak hazita zeuden ordurako  
etxean. Dena lehen bezalaxe.  
Lan eskale.  
Eta gero, egunoroko egunak, isil-isilik.  
Urteak eta urteak.  
Ezer ez. Etxetik lanera, lanetik etxera.  
Etxean bakarrik aipatzen zen iraganaldia.  
Kotxea, telebista.

Konta iguk nola arbolak zeuden  
mendian, mendi euskaldunetan,  
eta ez zuten sentimenturik.

Esaiguk zergatik berrogei urte geroago  
gerra triste hura gure ariman oraindik dabilen.  
Zergatik hildako ezagutu ez dugun hainbeste  
gelditu den gure memorian.  
Hil ta gero alderdirik ez dagoela.  
Zergatik gerra hura ez den sekula amaitzen,  
zergatik dagoen frontez beteta egunoro gaua.

Esaiguk zergatik zerbait.

Eta ez badakik, nik esango diat:  
hator, lagun,  
dena ez da deus izan, deus,  
Artxandan, Urbanan, Santoinan.

XABIER AZURMENDI

## POETA MUTUA

Amaika euskal bertso  
inoiz kantatua,  
hitza hain zun ederra,  
burnizko kantua;  
ezpainak aztun orain  
mingaina lotua,  
txori bat hila bai duk  
poeta mutua.


Hiru bertsoetan esan  
leiken gauza ez da,  
kantatu ohi zizkigun  
herri baten kezka;  
kantari bizitua,  
kantari arnaska,  
azkenean muturik  
hitz bat eñ ezinda.

Udazkena, trixtura,  
sentitzean gertu,  
denboraren adua  
nahi zigun okertu;  
poeta ezin bai da  
bizitzez aspertu.  
Euskara utzi baino  
lehenago mututu.

Hau da bizitzak duen  
amaitu beharra;  
atzo egunsenti zen  
gaur ilunabarra,  
harriari berari  
dario negarra:  
poeta jaio eta  
mututu beharra.

Ego-haizea dator  
gozo ta epela,  
xoria zeruetan  
barku bat bezela.  
Hitza galdu zun baina,  
inoiz ez euskera;  
herri honen poeta  
ez gendun bestela.





Hand  
II

## OROIMENEZ

Izén baten bila zebilen gizona,  
ta nik esan nion:  
«Izen bat baino gehiago  
opa dizut, gizon».

Izena herri baten idazten  
jarraitu zuen gizonak,  
ta nik esan nion:  
«Harri bat baino gehiago  
opa dizut, gizon».

Ezen gizonaren izena,  
aldiaren boladak,  
haizeak lainoa bezala,  
eraman lezake.

Ezen harria, denboreak mizkatuta,  
hondartzako hare bihurtzera  
zoripetua izan daiteke.

Baina hala ere, bere historia  
idazten  
jarraitu zuen gizonak,  
ta orduan, nere ahalegin guztiaz,  
esan nion:  
«Zure ekina baino gehiago  
opa dizut, gizon».

Gizonari opa diot  
bere historia baino gehiago,  
Ezen bere historia lurra da,  
ta lurra  
ezin daiteke izan  
gizonaren azken apurra.

Gizonari opa diot  
bere arnasa baino gehiago:  
beste iraute bat,  
beste izate bat,  
trazendentzia bat.  
Ezen gizona ez da inor,  
heriotzaren beste aldetik,  
nonbait ta nolabait,  
nortasunik ez badu.

Ezen gizona ez da inor,  
betiraune bat,  
orain betiko,  
presente bat,  
beragaz izanen ez badu.

Plaka bat baino gehiago,  
liburu bat baino gehiago,  
oroitza bat baino gehiago,  
opa dizut, gizon.

Ezen...  
Non geratzen da gizona,  
gizonen memoriatik galtzen denean,  
belaunaldiak  
lurperatzen direnean ?

Gizonaren denbora betikoa,  
bere memoria gizonen burutik  
galduta gero hasten da.

Gizonaren bide luzea,  
denboraren muintatik  
irtenda gero hasten da.

Zorionak lagun zaizala, gizon,  
zure ekinaren ostean,  
zure denboraren errematean  
hasiera duan  
betiko bidean.

## AMETS BAT ETA BESTE...

- Neure laguna, neure lagun izengabea,  
Zendako habila begiak bustirik ?
  
- Nondik dator haize epelaren pereka ?  
Sortu nindukan bizitzeko eta...  
Neure begiak ez dituk argiari ireki  
Gauak sortu nindikan eta...  
Berean bildu nik eta neramak!
  
- Gauaren neure laguna, neure lagun izengabea,  
Zendako habila begiak lanbrotan,  
Egun hemen bihar beste nonbait  
Mamu baten gisa ?
  
- Nondik dator haize epelaren bustia ?  
Sortu nindukan bizitzeko eta garraitzeko...  
Baina, amets batek nerabilak,  
Egun hemen bihar beste nonbait,  
Beti-ta-beti urrunago, gaurkotik haraindian...  
Gauak amets batean sortu nindikan hain segur  
Eta berean bildu nik eta neramak!

.....

Neure bizia duk ezin kokatua  
Aspaldian itze bat bilatu diat  
Itze bat gogorra eta zorrotza  
Neure bizia duk ezin itzatua  
Egun hemen bihar beste nonbait  
Neure bizia duk harat-honerakatua.



Behin eta nik uste gero, askotan ere,  
Amets bat egin diat  
Euskal Herriko haritz bat hautatzea  
Euskal Herriko ibar zola batean  
Haritz sendo bat hautatzea.

Egunak  
Eta ilabeteak  
Eta urteak iragan zaizkidak...  
Haritz bat ez diat aurkitu  
Euskal Herriko ibar zola batean.

Behin eta nik uste gero, askotan ere,  
Burruka guzien artetik eta atzetik  
Amets bat egin diat  
Euskal Herriko gure gorde bat hautatzea  
Euskal Herriko ibar zola batean  
Gune goxo eta baketsu bat  
Itzalpean.

Ametsak berritu dituk  
Eta joan  
Ortzian lanoak bezala  
Gauean egunak bezala...  
Eta asteak, ilabeteak, urteak  
Joan zaizkidak  
Oroitzapen hunkigarriekin batean...  
Gune gorde bat ez diat aurkitu  
Euskal Herriko ibar zola batean.

Neure bizia dukek nonbait ezin lotua  
Arkatz bat bilatu diat  
Soaren pausa leku  
Bederen soaren pausa leku...  
Egun hemen bihar beste nonbait  
Neure bizia dukek erro gabetua.

Alta  
Ametsetarik landa  
(Zendako ez: ametsak bultzaturik?)  
Erroak egin nahiko nintikan  
Euskal Herriko ibar zola batean  
Laharren artean  
Han nonbait ixil gune batean

Laharrek beti pusatzen dikeie  
Arkatz inguruak zainduz  
Baina  
Lagunik ez diat aurkitu  
Neure ametsen heinekoa  
Neure amodioaren betekoa

Eta  
Banabilak  
Egun hemen, biar hantxet, etzi  
Ez dakiat non  
Neure ametsen heineko  
Neure amodioaren beteko  
Lagun baten bila...  
Arkatzetin eta laharrekin eta iturriekin  
eta haizearekin  
Adiskidetua den lagun baten bila  
Burruka guzien atzetik  
Bere izerdian iratzeen usaina dariona...

Eta  
Banabilak  
Euskal Herriko ibar zola batean  
Han nonbait gune ixil batean  
Haritzpe bat izanen delakoan

Neure intzirien kontsolatzeko  
Eta beharba  
Lagun bat ere  
Hilen naizelarik



Neure gorputza  
Lurpean gordetzeko...

.....

—Neure laguna, neure lagun izengabea,  
Iruzkia gorde ziguk  
Euskal Herriko mendietatik urrun  
Eta gure Herriaren lurra  
Uste diat arrotzek beretu digutela  
Eta beldur nauk  
Ez ditugunetz sekulako galdu  
Geure ibarrak  
Geure haritzak  
Laharrak, iturriak, gaztainadiak eta arkatzak  
Eta  
Geure odolaren beroa ?

—Nondik dator geure lurraren intziria ?  
Nondik haize epelaren bustia ?  
Sortu nindukan bizitzeko eta garrantzeko...  
Ametsak hartu nik eta berean neramak  
Gauak eguna bezala  
Burruka guzien harainditik  
Euskal Herriko ibar zola bat  
Aurkituren dutalakoan  
Eta beharba  
Lagun bat ere  
Hilen naizelarik  
Neure edol beroa  
Euskal Herriko lurrean biltzeko...

EUSEBIO ERKIAGA


## KANPAIAK ERE

BEHAR ditugu kanpaiak ere,  
behar ditugu.

AURTZAROAN  
eta gaztetxotan ere,  
kanpantorre ondoan  
durundi jario atsegiñez  
egunen iragan-jokoan.

KANPAIAK aldatzeke du aho-mihi;  
alaere, mintzo ta esangura,  
doiñu ta oihartzuna,  
maiz aldakor eta berri.

ANITZ esangurako baitira  
joareen durundak,  
noizko, nungo ta nolakoak diren;  
zoli, azkar, arin...  
astun, motel, illun;  
batzuetan argibide,  
iñoizka negar-eragiñen.



J. Garro

JUAN GARRO .25.

ZERTARAKO ta zergatik  
oihu berezi?  
Aho-mihi duten gauzak  
direlakotz,  
itzik gabeko mintzo bizi.

GAIÑERA  
kanpaia  
olerki  
aiña da,  
gurari  
betea  
doiñutan  
emana.

GIZONAK  
eskuaz  
ukitzen  
duena  
ez baita  
betiro  
gauzetan  
onena.

AI, Goethek entzun kanpae  
Pazko-goizekoak!  
Ele ederretan barrena xurga ta  
ura zirraren goxo,  
sentimenaren muiñean!

ETA alaxen urteoro ailitz,  
bake-soiñuzko goiz ura,  
Jaun onari dakioño.

AIZEAREN egoetan  
oihartzunak bide bihurri,  
baiña beti aske,  
txoriek baiño ere askeago,  
albakoan, eguerdiko amabietan,  
abemaritakoetan,  
eta arimen kanpaietan.

GAUEZ ari kanpaiak, ordea,  
izua du emaitz,  
neke eta gaitz  
aldarrika:  
estura-itz, el-oihu,  
kezka, ximiko ta  
auzo-premiaren ulu.

IZUA urbil denean  
kanpaia nahi guk lagun;  
deusez bait gara,  
zurtz eta alargun.

EGUNEZ entzun kanpaiak  
zaizkigun atsegin,  
neurrian emanak,  
ebakia berdin;  
alaxe odolak  
bere igi-tintin  
osasun denean.  
Entzumenak atxikia,  
ez eskuk ukia.

EZ baita  
betiro  
gauzetan  
onena  
gizonak  
eskuaz  
ukitzen  
duena.

ETA kanpaia bera  
uki badeza ere,  
doiñu-durundia  
ihesi doa,  
animaren intziria  
doan bezela,  
ezin atzemana,  
aizetan barrena.

ERRIMIÑEZ mozkortzen gaitu  
joare jakiñen mintzairak,  
iri aundira bizibehar onek  
giro itogarrira erakarriok,  
ta ala, urrun-miñez ero ditugu  
begi ta belarriok.

KANPAIAK ere behar ditugu,  
kanpaiak ere.


GAIÑERA  
kanpaia  
olerki  
aiña da,  
gurari  
bizia  
doiñutan  
emana.

ZERUMIÑA sorrarazten duena,  
olerki esan-eziñaren  
muin eta kemena,  
iñoizka elkarrizketaz  
argi ezin ditekeena.

AI, Goetheren  
kanpai xamurrak,  
alaiak

Pazko-goizean!  
Munduko bekaitzen ondagarri  
odei txurien egalean.

GIZONEN mintzoak  
—bai gezurti, ez zintzoak—  
zitalagotzean,  
zoin den eder  
dilin-dalan leuna  
gizonaren bake-gosean,  
zuzen eta askatasunean!





## GAUA

(lehen saiakera)

gaua,  
argiaren haseratik deitua haitz zuloan ahoetatik,  
usatzen bere ortziaren izar malutak  
ireki berri dagoen atostean.  
katilu zartatua ezpainetara bidean.

dei marinelen emazteei, datozela!!  
itsaso zuriaren arkarak ezpaidira etorrialala onhartzekoak  
beste zereginik gabe.  
datozela!! ogi zuriaren jaira.  
soroek egun sendoen nekepetik lasaituak,  
ekarriak ganbara kutxetara.

jakituriak neguko haize beltzaren orrietan:  
«sinetsi ezazu ikusten duzun oro  
eta sinesten duzun oro ikus ezazu»  
berez haitzaren oinharria bezain zintzoa da gure babes.

atari begian argizagien su arimatia xistuz,  
argilunak haren hariak goiko zurean.  
abarkak, trailetatik askatuak, gauza ez traskila dantzara aisatzeko.  
begirada bat baino zabalagoa  
eta deia baino laburragoak diren lazto printzak izarditan,  
bekokietan,

nekearen iltzeak.

dendari ttipi azeriak kukurio lehio ostetan,  
den-dena sudur, belarri eta begi,  
egunerokotasunaren eguneroko erraldoia  
emazteen ohe sakanetara eramanez saritzat.  
hara horientzat ere gauna lotsuntzi!!

egunsentiaren mantarretan biluzik  
etxeusoak lizar sustarrak aztzertzera jin artean,  
orduan nonbait haien begien bizitasunaz oharturik  
izu samur batek argizagiak eta eskutargiak amatatzen ditu.

deustuko zubi bikoitzak besoak zabaltzen dituanean,  
ur loien joana arintzeko,  
logeletan haziaren usaia (goroldio negutarra)  
odolezkoa den ibai ahorezinean.

*EÑAUT ETXAMENDI*

# NOR DIRA HOLA

**Zueri, nigar idor arazle haurrak.**

Nor dira hola kalapitaka joan lasterka  
Zirurika jantza-jauzika  
Bidian gora bidian behera oihera garimaka  
Herriko haurrak mutil-neskatxak ikastolaka  
Gure pottolo pollitak  
Pentzeko lili zeruko xori  
Biharko Herriko prometak

Goizian goizik jeikitzen gira  
Kanpuan hotz da izotza da  
Ama adio sarri artio  
Ez trixta gio gomendio

Nor dira hola kalapitaka joan lasterka...

Mendi gainean negu ondoan  
Elur xuria iruzkian  
Gure bidian elorritzian  
Xori habia lilipian

Nor dira hola kalapitaka joan lasterka...

«Xiula-miula» da kantariena  
Mikelen dugu oihartzuna  
Leizar axalez egin xirulez  
Kanpua betez xaramelez.

Nor dira hola kalapitaka joan lasterka...

Kukua kantuz artzaña huxtuz  
Ardi juare-luz goiti buruz  
Bildots kuxkurrak ari jauzteka  
Iduri haurrak jostetaka


Nor dira hola kalapitaka joan lasterka...

Gure bidian oi zer mundua  
Laboraria maextrua  
Bai ta hargina ta brazerua  
Hau da langile erreinua

Nor dira hola kalapitaka joan lasterka...

Gure bideko jenden irria  
Guri delarik so jarria  
Horrek derauku maiten tirria  
Heiek bezenbat egitia

Nor dira hola kalapitaka jean lasterka...,



temisttermindy kucija kal  
75

*JUAN ANJEL ETXEBARRIA*

# ARESTI EUSKAL ARGIÑA

Euskal Arri gogorraren  
langintzan Argin setati,  
biotz-mailluak batera  
zenituan erabili.

Erio ankerrak bere  
altzo illunera eraman  
zaitu, oraindik eskua  
gora zendula aidean.

Zure maillu-otsa ixil  
dan arren, bebil biotza  
gure lagun, leun dezagun  
gure Arri landu-gaitza.

## RAVEL

Asiko nindukek irekin olerkiz:  
Erantzungo idakek apainki eresiz.  
Ikusi i Ziburu'k, eun urtez aurretik;  
Egin uken lana beldurrak utzirik.

\* \* \*

Aundiak ortxen dik ondoren itzala:  
Irea ez dek, beintzat, izan ain makala.  
Soñez arean i apurtxo argala,  
Biotza txit eder asmoa zabala.

\* \* \*

Sakonez ez diok iñortxori zorrik:  
Ireak txastatuz ez nik artzen lorik.  
Ondu al dizkitek ireak lakorik?  
Txit goikoen mallan ageri aiz zutik.

\* \* \*

Ba-ekarken mezu, orobat sugarra:  
Landolako keak izango negarra.  
Ik i<sup>h</sup>turri maite, gogozago izarra,  
Motxallek ez dik gaur, l<sup>h</sup>en ziken bizarra.

\* \* \*

Ez al uken illun sumatzen alboan?  
Ik alaitzen oro abestuz giroan.  
Giza-batzak ere txit pozik pilloan,  
Etxeratuz, aiek ezti-tanta aoan.

\* \* \*

Atzetik ituken iarraileak erruz:  
Txaloka ekiñez ausiko bai eskuk!  
Aldi artan nerau Bilbo'n, Donostia'n,  
Iruña'n, Baiona, betiko ibilian.

\* \* \*

Arrokeri gabe Ziburu'ra i biur:  
Gezalean udan biguin egonize.  
Berritua oso, berriz ba-oake,  
Arakatu ludi, alaitu gizarte.

\* \* \*

Astun guk eguna okerraren zamaz:  
Iregana niak, Erantzi nai kezka.  
Entzun esker-onez ik sortu emaitza,  
Aurkeztu erriei zitori oraila.

\* \* \*

Izarren dizdiza diguk erakutsi:  
Ez nekina diat beingoan ikusi.  
Ioan beti gôra. Ezer ez itsusi!  
Eusko-lur ioria maitasunez busti.

\* \* \*

Erri-errikoak maitagarri iretzat:  
Itali, yuduar, parantze, espñarrak.  
Oarrez bilduta, orrian ezarri,  
Areto politak betetzen ik sarri.

\* \* \*



Formosa ontara nintzala etorri,  
BOLERO ziteken irratiz igorri:  
Barnean odola niken gori-gori,  
Biotza txit alai ta musua gorri.

\* \* \*


Euskotar batera, laister «La Paloma»:  
Eresia lengo, ta itza emengoa...  
Esateko era ez oso zintzoa!  
Auen ustez ni nauk arrotz-mokoloa.

\* \* \*

Nexkaren PAVANA gutxik emen iakin:  
Australia'tik ditek iñoizka zabali.  
Aizeak ekartzen egoki eta arin,  
Eresi zoliak askori eragin.

\* \* \*

I beztutzez ez nik asko irabaziko:  
Goitik uken argi URTZI ospatzeko.  
Gizuren giartsu. Ez iñor kideko...  
Ez nik nai izan azken RAVEL goratzeko.



*BITORIANO GANDIAGA*

## KALEAN...

Kalean  
zurrumurrua dago.  
Zergatik zurrumurrua ?  
Zergatik dabilta  
zurrumurruka  
kalean,  
informazioaren  
azpiko izarak  
sospetxa begiz  
miatzen ?

Kalean  
bildur lodi bat dago.  
Zergatik dago bildurra ?  
Zergatik dabilta  
kuku-mukuka  
kalean,  
libertadearen  
aingeru guardaz  
ez direlarik  
fidatzen ?

Kalean  
odol usaina dago.  
Nork ixuri du odola?  
Zergatik hil dute  
tiroka gizona  
kalean,  
justiziaren  
esku ta bide  
hala dutela  
bortxatzen?

\* \* \*

Behin batetan neskatila bat  
zuen hil jauntxoak  
feudoko zelai handiaren erdian.  
Feudoko morroi eta neskame guztien begitan  
zuen jauntxoak hil neskatila ezpataz.  
Morroeik garbitu zuten ezpata mingainez,  
eskuak garbi zitzaizkan eraman zien ura  
neskameek jauntxoari.  
Gero zulo batera bota zuten neskatila  
eta ihardun zuten zelaia txukuntzen  
morroiek eta neskameek.  
Gero udalenari eskainitako jai bat zuten ospatu  
jauntxoaren omenez,  
feudoko morroi eta neskame guztiak.  
Atsegin zitzaizkian jauntxoari  
feudoko morroi eta neskameen algarak.  
Atsegin zitzaizkion jauntxoari  
folklore zaharreko egerpenak ere.  
Hain zen ona jauntxoa, berberak inguratzen zizkien  
jaitarako behar zituzten mozerro  
eta katamalo guztiak bere morroi eta neskamei,  
eta esku zabalez zuen ordaintzen  
morroi eta neskame zintzoen lana.

\* \* \*

«Laino guztien azpirik  
eta sasi guztien gainerik.»  
(Hartzabalez idatzi nuena (1)  
Arestiz ere.)

Eta poetak  
disparateak omen  
zituen idazten  
                  eta jende guztia  
                                  eskandaluz betetzen

omen zuen poetak,  
                  batez ere hemen,  
non jendeak ez duen  
ezer irakurtzen.

Eta poetak ten-ten,  
baina poetak ozen,  
juxtu disparateak  
                  omen zituen salatzen,  
juxtu eskandalua  
                  biziki gaitzesten.

—A,

                  baina  
                                  ja,

berdin zen malpoeta,  
ez baizuen bereizten

norena zen kaka.

(1) Inon agertu gabea da.

## G. ARESTIREN AITORMENETAN

«Nire aitaren etxea  
defendituko dut», esan zuen  
bat bateko suak.

Urez heldu zitzaizkionak  
indartu egin zuten;  
adarrez eraso ziotenek  
haserretu.

Alferrik ginen urruti  
ilinti zaharrak gordetzen,

Errausle ta sortzaile zetorren,  
bihurri ta martzal;

baliorik eta  
etorbiderik zuena  
harri ta herriren  
begitan jarriki.

«Nire aitaren etxea  
defendituko dut», dio  
«HARRI ETA HERRI»atik  
abots gorenak.

Deihadarrak entzun ziren  
suaren kontra  
lekaioak suaren alde.



## Haizeak

Bere baitariko zeragion su  
azkarra zen.

bat baterako argi beroak  
jo ginduen ta itzul arazi.

zaharkinei atxikiz, aitareneko  
ganbara ta ate-osteko  
ezertarako ez zen oro  
erre zuen  
ta argia sartu etxean,

Erreturan  
belar berria erne da,  
garia, bideak,  
ihardun-poza.

«Nire aitaren etxeak  
iraunen du  
zutik», darantzuio  
«HARRIZKO HERRI HAU»  
beteko erantzunak.



# HIRE GOZOA, HIRE NAHIGABEA...

*Nere illoba Maria Jesus, Marisol, Arantxa  
ta Maritere-ri*

argiaren errainu bizietan  
ala lainotan bildutako lur bazterretan

hire gozoa  
hire zaporea  
esanen dut

ametsezko goiznabarrean  
ala arrats-beherako urdinarrean

hire gozoa  
hire zaporea  
esanen dut

urdina ta berdea ta ubela uherduraz nahasten direnean  
ala ur garbien — ai! orain zikinen — murmur hotsetan  
geldi, mehe, ixil-ostuka belarrira

hire gozoa  
hire zaporea  
esanen dut

erreka zokondoetan zozoari  
ala ilargi xuritan errexinolari ikasi bezala

hire gozoa  
hire zaporea  
esanen dut

zuhaitz-adarrak iharrosten dituen haizeari  
ala hodei beltzetan lehertzen den ihurtziriari entzun bezala

hire gozoa  
hire ikara  
esanen dut

itsaso zabal narean  
ala uhinaldi harroaz haserre denean

hire gozoa  
hire hizialdura  
esanen dut

ogi ta ardoz joritutako soroetan  
edo bonbaz desegindako lurraldeetan

hire gozoa  
hire laztura  
esanen dut

haurraren keinu estreina berrian  
edo alargunaren esku urratuetan

hire gozoa  
hire nahigabea  
esanen dut

artzainaren kantu-xarameletan  
edo ximinietako xistu zorrotzetan

hire gozoa  
hire asaldura  
esanen dut

irribarrezko eta nigarrezko harremanetan  
edo bakartasuneko besarkada hotzetan  
biziari ohartzeko

hire gozoa  
hire herstura  
esanen dut

zuzengabekeriaren kontrako borrokari eusteko  
edo gizaseme kateatuaren libertade bideari jarraitzeko

hire gozoa  
hire lehiadura  
esanen dut...



## GEZURRA DIRUDI

gezurra dirudi, baina  
baratzean larrosa  
loreak ematen ari zen

etzekien oraindik  
atomo bonbaren berririk

gezurra dirudi, baina  
adar gainean xoria  
arraultzak berotzen ari zen

etzekien oraindik  
atomo bonbaren berririk

gezurra dirudi, baina  
etxe-atarian oiloa  
xomorro bila kafaka ari zen

etzekien oraindik  
atomo bonbaren berririk

gezurra dirudi, baina  
amaren bularretan haurtxoa  
ditia edoskitzen ari zen

etzekien oraindik  
atomo bobaren berririk

gezurra dirudi, baina  
neska gaztea atzarririk  
amets ederretan ari zen

etzekien oraindik  
atomo bonbaren berririk

.....

eskerrak etzekitela  
atomo bonbaren berririk



## HERRIAN ODOLA

Noiz, nun, nola dario  
herrian odola?  
Urak gorritu dira,  
orain ez Urola.

Abuztuko ilargi,  
ilargi betea;  
lotsagorritan dago  
laiñotan gordea.

Artaldeko bildotsak  
otsoen hortzetan;  
ur zikinduen kulpa  
zuzenen kaltetan.

Baratzeko larrosak  
bost orri gorri;  
bostak odoletan  
zauriz hilgarri.

Barne guzietan  
amorru larria;  
ez da hilen horratik  
ikaraz herria.

Bada lagun presturik  
burdin-sarez hertsia;  
lagun ezpagatzaie  
behar dute etsi.



Zer da hobe, hil ala  
itxaropen hutsez  
ilun beltzean iraun  
egunez ta gauzez ?

Zenbat ilargi bete  
joanak alferrik!  
Laiñotan datza lurra  
ta urak gorririk...

Kobla hauk ondu ditut  
gorderik harpean;  
karranka hotsez doaz  
beleak aidean.

## EGUN BELTZAK...

Egun beltzak  
izan ditu nere bihotzak,  
bainan egun osoak, beroak  
ezin ederragoak.

Egun beltzak Afrikan  
Beltzekin borrokan.  
Egun beltzak,  
nahiz bazen  
argi eta iduzki,  
nahiz bazuen ene bihotzak  
miragarriko egitekoa:  
nundik nolaz erein Jainkoa.

\* \*

Leihotik banuen hor  
zuhaitz bat hezurra bezein idor;  
lur kiskalduan  
zuhaitzaren pean  
iratzerik ezin sor.

Noiz agertuko zain neri  
euskal-lurreko iratze-ostorik  
aizez hanpaturik, uriz mozkorturik  
mendi gainetan dantzari.

\* \*

Zortzi egunen buruan  
iduzki beroaren beroan  
zuhaitzari sortu zaizko  
euskal-lurrekoak  
bezalako  
iratze-ostoak.


Ez banu ikusi  
ez nuen sinetsiko:  
hola  
sortu zitakela  
haitza bezein ederreko  
zuhaitz hortan ostoak  
iratze-osto bizi baino biziagoak.

\* \*

Dohatsu, dio Jaunak,  
ikusi gabe sinesten dutenak.  
Bai. Beltzen lurrak  
lur legor eta idorrak,  
izerdi eta nigarrek busti-eta,  
emanen dauku  
Jainkoaren uzta.

*Zañanado* (Dahomey-n)

75 - 2 - 23



JUAN MARI IRIGOYEN

# ALTZA EDO HERRI BATEN HERIOTZA

Altzako dorre zatar hauen artetik,  
    airea hautsez beterik,  
    bihotza tristeturik,  
    eztarria lehorturik,  
garraisi egitera noa eta galda:

    —Zer da estetika?—,  
edertasuna zer den  
    altzatarrok  
    aspaldian ahaztua bait degu.

1940. urtean Altza Donosti egin zuten.

Bai,  
egun beltz bat izan zen  
Altzako historian,  
eta tamalez,  
    Altza Donosti egin zuten.  
Egun betz bat izan zen  
Altzako historian;  
hemen gaude orain  
    hil zorian.

Altzan gauzak pentsa,  
Donostian erabaki,  
zure azal berdean  
zauri bat zuten ireki...  
Zenbat odol xurgatua  
Jainkoak bakarrik daki!  
Eta aurrerapena ekarri zuten,  
aurrerapena diruaren zerbitzuan...  
Soinuak,  
bide hautsiak eta bide-zuloak,  
zikintokiak,  
hauts eta ke, ke eta hauts,  
gustu gabeko etxe zatarrak!  
Bigarren mailako biztanleak izatera kondenatuak...  
Gutxi balio duk altzatarra!

(Hori bai,  
animaliak erruz maite ditzagun,  
plazatik bertan,  
txakurtegia jarri zuten.  
—Zer da estetika?—  
Guau, guau, guau...)

Baina honekin konforme ez,

—Zer da estetika?—

galdatu dut berriz;  
dorre guztien gainetik salto eginda  
Donostiko Avenida de España-n entzun da  
nire abotsaren oihartzuna:  
—Zer da estetika? Zer da estetika?...—,  
eta gero erantzuna:  
—Diruz bete patrika!

Milimetro bakoitza aprobeixatuz gero  
negozioa da handiago,  
eta etxe zatarrak gora,  
eta etxe zatarrak gorago.

Dorre bat hemen,  
dorre bat han,  
hautsaz hats har  
eta porlana jan...,  
noiz utziko zaituzte  
bake ederrean ?  
Dorre bat hemen,  
dorre bat han,  
dorre, dorre, dorre...

DORREMIFASOL,  
betiko musika berdina,  
pentagramaren ezina,  
estetikaren mina,  
zimenduaren ogirina,

eta batez ere  
kaka zikina!

Eta zikina hemen,  
zikina han,  
errekak kirasturik,  
negozioa eta dirua,  
belar-meten ordeztu etxe-metak,  
soinuen tronpetak,  
eta

hahahahahaha... txi!,  
hautsa bait da berriro  
nire eztarrira iritsi.

—Zer da estetika ?

—Diruz bete patrika!

Altzan berdea berde zen,  
halakorik ez dago ia hemen,  
eta gelditzen den gutxi hori,  
negozio berri baten izenean noski,  
estaliko dute  
berde guztia uxatu arte.

Orduan bai,  
azken odol tanta zurrupatua,  
orduan bai,  
bakean utziko zaituzte.

Donostiak zintuen irentsi  
katuak txoria iresten duen bezala,  
eta gaur Altza

EZ ZARA ALTZA

Donostiak kendu bait zizkizun galtzak.

—ZER DA ESTETIKA?

—DIRUZ BETE PATRIKA!

Gaur zatar eta hain zikin,  
atzo berriz elur,  
Agur betiko Altza,  
betiko Altza Agur.





J. Mieg

## SUA ERRETZEN

«Izerdi» izeneko jainkoaren  
benetako enbajadore horiek,  
bizitza tailerra bihurtzen  
bizitzaz eguneroko lan astuna egiten  
poesiarekin mailua  
eta mailuarekin burnia lantzen,  
ikusiak ditut  
su-ta-gar jo-ta-ke

Gure gizon paregabeko horiek,  
hitzak zementoz idazten  
lurra irauliaz  
azpikoa gainean jartzen  
eta ez odei ez eguzkirik ez dagoenean  
beren eskuekin itsasoko urak hartuz  
erreka zainari itzultzen,  
ikusi ditut nik neronek

Hortzetik hortzera  
haizearen egaletan  
betiko galderak:

Gorriak	ala	urdinak ?
Beltzak	ala	zuriak ?
Berdeak	ala	horiak ?

Zer ote dira ?

Azaleko koloreaz neurtzen ditugu denak  
eta neurri berdinarekin gainera  
traje bat egiterakoan bezela

Utz ditzagun koloreak  
eta koloreen arteko haserreak  
Euskal Herria beterik bait da  
gizon emakumeaz

Gizon batzuk ikusi ditut bai  
beren herriaren alde  
borrokan diharduten horiek  
ondarra nahasi gabe  
arrastorik uzteke  
eta eskunarruak izkutatuz  
aldez aurretik nonbaiten  
beren eskuez  
sua erretzen

Zapelatza ikusi dut zeruan  
goitik behera nola datorren  
bere mokaua harrapatu nahiean  
lurreraino heldu arte  
ikusi dut baita ere  
goseak ase gabe  
haserre bizian  
berriro goraka igotzen

Sasien artean izkutatzen  
zakurrez inguraturiko  
piztitxoak ikusi ditut hemen  
ase ezinezko zaunkadak entzuten  
ikara era beldurrez  
bihotza geldirik  
eta arnasa hartu ezinez

Beldurrak eraginda  
eta beldurra bera gaindituaz  
bizitza motz honen bidetik  
urrats azkar bezain sendoei eusten  
ikusi ditut neuk gizon ausarta horiek

Bizitza presaka bizi nahiean  
Trago batean irentsi beharrez  
langile porrokatu horiek  
penaz ikusi ditut  
gazterik hiltzen

Begietan malkoak  
bihotzak atsekabez  
amalurraren magalera  
bihurtu zarete  
«bizidunak bakarrik  
hil bait daitezke»

Har itzazu  
bizidun direnez  
zeure sabelean  
amalur maite


Sabeletik jaurtiko duzu  
berriro hainbat hume  
eta sumendiaren ahotik erdituko  
hilotzak kateetatik  
liberatzen dituzula  
eta bide batez  
hildakoen arimak berpizten  
bukaerari hasera emanaz  
betiko bidetan  
bide berriak egiten

## GABRIEL ARESTIREN OMENEZ

Landare-jantziz  
leertu dira  
zokoraturik zeuden  
azi txikiak.  
Debekatua zitzaieten  
Bizi-argia arnastea.  
Zertara jeiki,  
gañera,  
—arkaitz artetik—  
arri-kutsuzko  
gogortasuna  
besterik  
eskeñi  
ezin zezaketenak?

Lur motzean  
eta  
eze laburrean  
du arnasa  
zaiñ  
bizi-emailleak!

Txalo ugaritara  
ernaldu da,  
orain,  
aurren-agur bildurtia,  
margo aberatsetik  
fruitu osatua  
eskeintzen duan  
landarearentzat.  
Garratzegia zirudian  
—berriaren berritan—  
ale goiztarra  
ao biguñentzat.



Arresiz inguraturiko  
    esiak  
    urratzean  
eskura datorz,  
zuaitz-adarrak  
    —buru-makur  
eskeñi dizkigun  
    aleak.

Aingeru-albixtariak  
adierazi ditu  
ezkutuki nagusienen  
Berri osasungarriak.

Atsegin zaizkio  
    ibilkari  
    ezin-aspertuari,  
zelai arrotzetarako  
    ireki diran  
    bide berriak.

Itxasoak berak  
agurrik beroenak  
igorri dizkio,  
—laiñoen besoetan—  
trebetasun bizian  
bere burua  
    zerurontz  
    altxa duan  
    arri-arteko  
    landare  
    berriari.

Muga berrietan  
    eraiki ditezke,  
    gaurtik,  
ARRI  
    berrizko  
    ERRIAK!

PAULO IZTUETA

## PROFEZIA GUZTIEN KONTRA

Marx asko bagenitu...  
Freud gairiditurik zegok  
eta Reich behar diagu...  
Zientziak jantzi  
behar dik gizatasuna...  
Berpiz dezagun Russell laikoa...

Halaxen mintzo zen  
gure letraduna  
uhin berriaren esposetan  
kafetegiago tertulian.

Hala ere,  
profezia guztien kontra,  
gure mende honi  
penaz eta mixeriaz  
gizendu zitzaion tripa,  
gorrotoz bihurritu hesteak,  
eta agian halaxe sekulakoz.

Bihar sortuko den haurrak  
nigar eginen du segurki,  
eta egiten ez badu,  
hura ernarazi duen hazia  
ez da izanen lur huntakoa,  
eta orduan ez dugu nehor  
berpiztu beharrik izango.



Bitartean,  
egiaren mahainean,  
ene egia eskatzen dut  
errespetu guztiarekin.

Hauzi huntan  
arrazoinak  
partikatzeko,  
Orixeren Euskaldunari  
Arestiren mailua eskaintzen diot,  
eta Arestiren Herriari  
Orixeren laia.

## ZORION-BILLA

Nok ez maite gaur  
basarriko  
zorion-bakea ?  
Nok ez atsegin  
areiztian  
udako aizea ?

Elai ariñok:  
ez otzitu  
aurren lo beroa;  
gorde legunki  
atariko  
abitxo gozoa.

Doala bizkor  
bidetako  
motor-soiñu otsa!  
Entzun dagidan  
bedartzetan  
beien txilin-otsa.

Ez negar erain,  
neskatillok,  
auzoko mutillai;  
zabal biotzak  
inguruko  
mautasun zintzoai.

Esan guztiai  
deadarka  
barruko asmoa:  
«Bego gurekin  
etenbaga  
zorion-gogoa!»


Zerutik erroi gabeko  
harrria  
maisu ongi labratua  
hebe cit trebe eta  
habil batek



giltzarrri oinarri  
Zimentarria  
arbolaren ixura emandako  
harrria

EDORTA KORTADI

# KONZEPTUAL POEMAK



XX. mendeko euskal paisajea. Autore ezezagunekoa.



Gure telebista ez da ondo ikusten, ze pena!



Kultural Crossa. 1975. Lasarte.

DANIEL LANDART

## ANDRE HANDI...

Andere handi, andere handi  
Andere handi bat iduri  
Itzuli-mitzuli...  
Begi-keinuka, ardura deika  
Andere hori ari zait neri  
Itzuli-mitzuli  
Dena tripustelkeri.

Andere handi, andere handi  
Handi bezain itsusi...  
Itsusi, itsusi:  
Suge eztena, zaia beltzak  
Heriotzaren hortzak  
Andere hori, andere hori  
Ezin dezaket ikusi  
Baita zinez beldurgarri.

Andere horri, andere horri  
Iheska nabil, iheska  
Noiztenka, noiztenka...  
Baina ba dakit, ba dakit garbi  
Bihar ala etzi  
Andere horren beso-artera  
Beharko dutala erori...  
Erori, erori.

Andere horrek, andere horrek  
Behin betiko  
Beregatatuko naunean  
Egun batean  
Ez dut nahiko  
Lorerik  
Negarrik  
Are gutiago  
Laudoriorik.

Ehortz nezatela, ehortz nezatela  
Langileak, LANGILEAK  
Ehorzten diren bezala:  
Xume-xumeki; xume-xumeki.

Eta zulo barnean  
Geldituko naizenean  
Bakar-bakarrik eta hotz-hotza  
Hotz-hotza  
Zuen bizitzak segi beza,  
SEGI BEZA!



## EZ, ETZIRA HILKO

Errepika: **Ez, etzira hilko  
oi euskara maitia  
baina bai biziko  
betiko biziko**

Mila eta milaka urte ba dituzu  
Euskal lurretan mintzo zarela zu.  
Erdal mintzairak zuretzat dira haurño batzu  
Zure suntsitzeko xedetan segur ba dute espantu!

Mendietan bizi denari etzaio ez,  
biziaren kentzea ez hain errez.  
Nola arranoa libertatean hegalez,  
berdin dabila euskalduna azkar iraupenez!

Euskal Herriak mendez mende iraun baitu,  
Nihoiz nehork ez du arrunt beretu.  
Baldin badute ere bi alde zatitu,  
Euskal Herriak zazpiak bat ezarriko ditu.

Euskal zeruan izarrak dira ugari,  
guzien artetik da bat ageri.  
Lotu gaiten batasunaren bideari,  
gure izarra han baitago guzien gidari!



A. Olariaga

OLARIAGA

# HITZ NAHASTUAK

Nere zortzi deiturak ez dira euskaldunak,  
Nere euskara ez da garbia,  
Nere hitzak ez dira txukunak,  
Nere sinesmenak ez dira heurenak eta  
Euskal Herria sortzen ari gara.

Nik hasiera eman nion,  
Zuk bukaera eman zenian, zerbaiti.

Zulo zuri luze bat,  
auto borobil beltz bat;  
haiek ez dute gure hitza ulertu.

Behin eta berriro,  
lur galduaren bila mugitzen gara.

Itsasoko ur sakonetatik arrai haundi bat irten da,  
arraiarekin kaiuaren kabira noa.

Jan, egunero jaten dut,  
edan, beti,  
eta arnasa egunero ukatzen didate.

Inork ez du itsasoa ondoratu,  
ez eta poetaren fantasia ito;  
bainan ez dugu poemarik,  
ez dugu fantasiarik;  
poetaren fantasia zapaldu, poetaren fantasia beztu dute.

Kaiuaren kabira heldu naiz,  
ez naiz gehiago hemendik mugituko,  
amets horretan murgilduko naiz,  
inork ez du Anbotoko Damiaren fantasia indartsua isilduko,  
Damiaren hegadakada luzeak  
Saforen begirada larritua lasaituko du.

Zuk hasiera eman zenion,  
Nik bukaera eman diot, zerbaiti.

MIKEL LASA

# HEMEN DATZA POPEYE

**(Faulkner-en oroitzapenez)**

Popeye espetxeratu duten presondegiko patioan  
ilunabarreko haize-boladak bildurgarri astintzen duen  
Paradisuko zuhaitz horren aldean  
Pariseko UNESCO-ren jardineko Calder-en mobilak  
historia aurreko fosiltzarrak dirudite

Eta, nor ausartuko ote Unesco-ren zuzendariari -  
gorazar egiten ?

Eta nork eresi bat kantatuko ote dio  
euren zerbitzari den Edozein—Edozer jaunari ?

Baina Popeye hiltzaile beltza, presondegiko  
leiho ondotik bere bizia eta heriotza  
kantari dihardu eta berarekin batean  
beste gaizkile beltz andana mixerablea  
koru eginaz,

euren herriaren patu txarrari karraxika:

«Quat' jou' enco'! et alo! y vont pend'  
le meilleu' ba'yton du Missisipi du No'!!»

## ENE ESKUA

### **E. Txillidaren litografiak gogoan.**

Ene eskua  
eskultura bat da mitoz betea,  
kiromantziaren jakinduria bidea.

Ene eskua,  
fetitxe xanpala  
burilez marraztua.  
Bizi beharraren historia apala  
bera,  
erretaula guziz irregularrean kontatua.

Adierazgarria zait  
esku-zabalaren agiriko mezua:  
arraiez,  
ziriborro zaintsuez damait  
odolaren ozkek grabaturiko enigma.  
Bertan sinboluz dagerkit  
ene lehenaren eta etorkizunaren  
orain-oraingo kartografía ezkutua.

Osasunaren luze-laburra dakar,  
biziarena dioten zantzu bihurri sakona  
—batzuentzat txarra,  
besteentzat ona—.  
Buruaren eta bihotzaren lerroak  
berekini ditu,  
ene aldartearen hotz beroak.



C. Ortiz de Elguea

Izarrek utziriko  
diamantezko silua dirudi;  
gaudiaren altzotik datorkigun eragina,  
oroskopoen kinu sargariz  
urruneko mintzoa haragi egina.

Liburu batena bezain argia da  
ene eskuko orrien jeroglifkoa:  
ene birtutearen aberetasuna,  
ene bizioaren aingerukeria.  
Hain dira ezberdin  
besteek nitaz uste dutena  
eta ene eskuok dioena!

Ene espirituaren argazkia dut,  
ene materiaren aurpegia.

Ona bezain txarra,  
txarra bezain ona:  
kategoria arruntagoetan  
neurtzen du gizona.

Ez da hertzainen fitxa higitzailea,  
ez da elizgizonen iritzia,  
ez da jendeak nitaz dioena.  
Esku hau  
sakoneko klabe bat dut:  
jaiotza, poza;  
atsekabea, heriotza;  
maitasuna,  
lana,  
osasuna...

Tapiz misteriotsu bat daiteke  
hala beharraren hariak  
—betiko «parka» larriek—  
odol ziztaren jostorratzez  
bordatua.



Ez du inork ezagutzen  
ene gizatasunaren sakona.  
Neroni ere ezezaguna zait  
nigan dudana.

Eta ene eskua  
gero eta zimurrago egin ahalean,  
garbiago dakusket  
neure bizitzaren misterioa:  
bakardadean,  
eta zergatik naizen,  
eta zeinentzat naizen  
jakin gabe,  
azkenean  
eskuok uraundituko zaizkidan  
tximu bilutsa.  
Diodan garbi:  
askoz gehiago  
eta hau hutsa.

*Donostia, Urrila, 1975*

XABIER LETE

## NEGU HOTZ BATEAN

Negu hotz batean  
[negu tropikal kiskalgarrian]  
haragiak urratzen zituen haizea nagusi,  
ibaiari so nengoen  
eta bele zaharrek kua-kua  
ez zuten isiltzerik nahi...

bezabiltzen tranbiak,  
eta burdin erdoiltuen sinfonia  
hozki erneagarrien gisan  
ahosapaitik zehar,  
odol irakinaren  
pakete konjelatuak butigetan  
eta vanpiro hortz-gabeak  
dentisten egongeletan...


ondakiñak  
erreusak  
basura-zaku plastikatuak  
txatarra huts puru-purua,  
txokolate koloredun  
begi poetizanteetan reflejatuz,  
mintzairaren gonbito  
epelaren antzeko...

ez zegoen atsedean loretsu  
solas lasaigarri  
eta txolarte bigunik  
lehen mailakotzaren arrak  
esteak  
zulatzen zizkigun bitartean...

Itsasoa bera azkenean  
kakezkoa zen  
eta molde arruntak  
produkto prezintatuak  
zekarzkigun edo,  
mezu kontzentratuak  
ladrillu kozkorrak brau-brau  
eta berdura ondakiñak  
muturretara...

Baudelaire bera  
ipurditik hartzera  
edo nik ahal dakit zer  
nun eta nola,  
buldozerrek lurra berdindu  
xehetu eta zapaldu ondoren  
fantasiarik zoragarrienezko  
kardabera idorra loreturik...

halako batean elurra hasi zuen  
negu tropikotsu kiskalgarrian  
eta izadia maindire beltzez estaliz  
bidegurutzean gurutzaturiko urratsak  
gero eta urruntzenago  
urruntzenago  
urruntzenago zijoazen  
azkenik hauts xehe-xehe baten  
xiprixtiñak besterik  
ez nabarmendu arte...



J. de Oteiza

## GAUSENTIAN SORTU ZAIT KEZKA

Gausentian sortu zait kezka.  
Zertarako bizia ?  
Zertarako jaio ?  
Zertarako jan, edan, lo egin ?  
jolastu ?

Ez, ezin naiz geldik egon!  
Jakin behar dut  
zertarako munduan!

Irten, korrika irten naiz.  
Ezin naiz egon.  
Zertarako bizia!

Egun ilun, egun tristea,  
ezin naiz egon.  
Zertarako bizia!

Korrika noa  
korrika, korrika.....  
lainoa harrapatu nahian  
zuhaitzari galdetu nahian  
harriari, belarrari, hostoari.....

Baina ez didate erantzun!  
Lainoak busti egin nau  
eta hostoak farre.

Iturriak emango dit  
erantzuna!  
Joan naiz korrika  
baina ez dit erantzun.  
Iturria agortuta zegon.

## HIL DA...

Hil da Gabriel Aresti,  
borrokari ta amesti.  
Beste mundura ihes egin du  
bere mailu eta guzti.

Eskuan mailu berria  
landu nahiaz Harria,  
Kantauriako itxas ertzean  
gure asabek jarria.


Trumoi eta hodei beltzak.  
Nun dira jolas ta dantzak?  
Zizel ta mailuz landu beharra  
Harri zaharraren ertzak.

Egun sentian zotinak  
zurrunbiloan sorginak.  
Goizean goizik mailu hotsa du  
Aresti gure harginak.

Hargintzan ofizioa  
harrizko afizioa,  
Harri landutan egin nahirik  
Euskaldun Palazioa.

Gaur lehertu da lanean,  
Herriaren barrenean,  
Euskal Harria borobiltzeko  
enpeinu ta afanean.

Hil da Gabriel Aresti,  
borrokari ta amesti,  
bere lurrean bizi ezinik,  
mingots, garratz eta ezti.



Ruiz Balerdi

# ARESTI GOGORATUZ

## I

Euskalerrriak darin oñazearen  
egun gogor auetako batean,  
arestiar aritz enbor sendoa  
udaberria oraindik odolean  
ta, oraindik bertso ausartaren  
itxarozko ale eskeintzariz,  
emaiz betea aurkitzen zanean  
eman diote bai, betiko ildoan,  
eriotz-mintzo ixil, illetariz.

Txori-egoetan aize giroa  
kanta-soiñutu zanaz batera  
ai Gabirel! Zu ere, betiko  
ioatearen etengabeko arian  
bai, eraman zinduten, eraman,  
ezkutu ixillez beteriko  
ta, gau illun-beltzez iantzitako  
illerrituen bidazti andanan.

Bai, eraman zinduten egiazko  
arnas iraultzalle, egunduaren  
eredu gartsu izan zanaren  
aria eten ta, argia itzaliz.



Eraman zinduten iatorrizko  
aurrelaritza burrukalariz,  
erriaren abotsean dabiltzan  
zure arri eta abestiakin.

Euskal olerti etormenduaren  
Lizardi, Lauaxeta, Loramendi'z  
ta, beste, gazterik ioandako  
seme gotor batzuen antzera  
ioan ziñan zu ere, betiko,  
euskal parnasoan egundoko  
utsune latz, aundi bat utzita  
illezkortasun betiraungarriz.

Bere gogorakizun emaitzak,  
bere ametsak ta erokeriak,  
bere sakontasun goigarriak  
ta, beste olako iakingarriak  
ez billatu illobi arrietan  
baizik, ibillietako bidean.

Goazen bere Harri ta Herriz,  
—erabat illun ta argigarri—  
zeru esperorik ez duanakin,  
bere mailu, arrosa, krabelin,  
bere bertso gai azkatuetan  
daurkigun gizona aintzaraziz.

## II

Goazen kitarra ta txilibituz  
erriari debalde artutako  
bikainkeri bitxi ta merkez,  
Altube maixu ta Axularrez  
oñarritzen ditun bitarteko  
gizon eredugarri iakintsuz.

Ta zero-lurak ere aztertuz  
goazen Baal, Belial, Goteunez,  
Bilbo'ko zorri ta zimauregiz,  
Arrakundi'ko txakolin gorritz  
ta, Izaro itxaso bazterrez,  
arako Neruda, Leon Felipez  
begipetutako aize miñez.

Goazen aintzalduz Santimamina  
oi dan solomo ta gorasarrez,  
abestuz erri baten samina.  
Goazen baita Anton ta Gilenez,  
orain Anton ta gero Gilen  
tronko ura zerraz ebakitzen.

Aria arituz, matazatuz,  
goazen Llaudio'ko kanpantorrez  
Begoña, Urbia, Arantzazuz,  
Jurgi Oteitzaren arri landuz;  
Bladi ta Zelaia ta Salonjez,  
Mikel ta Basarri ataundarrez  
ta, beste milla atorramenduz.

Gatz ta ospiñez opildutako  
arestiar trikimaillukeriz  
goazen bere gogai, bioztasunez,  
santu batzuk iantzi ta erantziz,  
bere argi-eredu kutunezko  
kanpo-aizez txanbelindutako  
bertso azkearen doaitasunez.

Goazen bai berarekin iardunez  
beren ikuste ta biboliñez,  
eusko abertzalien erotasunez,  
Zorrotza portuko protesta ta,  
Artxanda'n erretako buskantzez,  
ta, arako egun, moda ta, graziz,  
Indautxu'ko plazan neskatx baten  
hula-hulaketa ikusgarritz.

Ta, orain Gabirel, ta bein batez  
gure iritzi ta miritzietan  
Euskalerrriaren zeru ta lurrez  
ta, zukin bat etorri ezarren,  
esan dezagun bai, abots batez:  
Bai. Gizon bat izan zan gizon bat,  
Euskalerrri erdi illarentzat!  
Bai agur dagoit nik, gorasarre  
bidegille trebe, ausartari!  
Nire aitaren etxea defendituko dut  
esan zuan gizon bulartsu, olerkariari!  
Bakea beraz, Bakea... Egun Aundirarte!



LUIS MARI MUXIKA

## XIRLA DESESTALIA

G. Aresti-ri

Itzal krudelek hitz egin zuten,  
xirla morea hondar humilean  
ezkutatu zen,  
eta ezkutatuaz-gero berriro azaldu  
herriaren hats orokorra  
ur mozkor, galant eta unibersaletan  
gaindik harro gureganatzean.

Herririk ez zen, —bazen—, auskalo...  
euskaldunek ez zekiten,  
giroak bere ekinduran  
izpiritua jan baizion,  
halako herri humil, otzan baketsua...  
Herria herri zenik ere ahantzia zegoen,  
herriak erregerik,  
legerik,  
biltzarrerik ez zuen...

Baina, animalia baketsu ta noblea bat-batean  
altxatu zen,  
suaren forma,  
metalen garraisia,  
grinaren haserrea  
ta aldiaren mozioa jantzi zituen.

Herria pizti bihurtu zen,  
krudel, anker, porrokatu egin  
bere asmoak.

Halako herri zintzo ta noblea  
(ah, gure «noble pueblo vascongado») hori  
herri zital, gaizto, erreboltari itzuli zen.

Gure herrian hitzak, begiradak eta laztanak  
zigorrek ziren,  
fusilaren besarkadak bere agina  
gure haragiaren ozeanoan  
hustutzen zuen,  
Europa osoa harritu zen,  
«ah, ah, herri zintzo, benedikatu hori  
zer jazo zaio,  
semeak hain gaizto bat-batean bihurtzeko?»

Gure semeetatik,  
gure andere  
eta asmoetatik (eta poetetatik)  
sentimendu gazia  
burdina bezala irtetzen da,  
eta aintzina ta geroa,  
oraina ta historia  
mendi handi, galant, sekulakoan  
biltzen da,  
eta askatasun-nahiaren hibai luzeak  
inoiz ez dira bukatzen.

Nahiz-eta nere herrian  
denak ez jakin, herri honek euskara bat  
baduela, naiz-eta, naiz-eta, naiz-eta...  
herri honen asmoak inork ez jakin (?),  
aspaldidanik xirla hondarreko lo moretik  
atera da,  
eta libertatea esperma galanta bailitzan  
gure asmoen,  
gure besoen,  
gure ahaleginen hibai behera  
galanki datorkigu.



A. Tapia

Ez dut ikusi halako esperma lodi, mozkor  
unibertsalagorik,  
hibai horrek hamar, ehun, mila seme bulartsu  
segida gozoan daramatzi,  
sabel gordinen isuria  
historia berri baten arroketan  
hautsiko da,  
ta sentimenduaren ardoak  
gure kale ta bulevarretan  
ihes egingo du...  
Zigorak gure soinetan  
hitz egingo dute,  
zaplaztekoak gure ahaleginean  
ezinez lehertuko dira,  
eta gure asmoen kopa luzetik  
etsaiek, arerioek, zigortzaileek ere  
ardo berria edan, edan, edan  
beharko dute,  
ezpata basatien laztan metalikoa  
alferrikakoa izanen da,  
gure haragiak egunsentia beregan  
izanen baidu,  
aspaldian estalirik zegoen xirla humila  
eguzki berriak erantzi,  
desestali,  
desezkutatuka baidu...



A. SANTI ONAINDIA

## ERORI INTZAN

Erori intzan, azkenez,  
tantai bezela noski...  
Nundiko abots ixilek  
joa erori ote?


\* \* \*

Arenegun  
ilun-garaiez  
euzkia beeratzean  
mendi maldan nengoan ni,  
ik maite induan  
Artxandan ixtapeka.

Urrun zegoen euzkia,  
Santurtze bezain urrun,  
suzko bola betean  
izugarriro eder;  
eta beerantz zioan  
ur-zilartegia  
garrezko osin egiñik.

Sua zan lenbizi  
gorri, diztirakor,  
galbide uts dituzun  
ezpain zabalen pareko.

Leiarrezko gandutik gero,  
izar aitaren irria  
eribera ipiñi naiean,  
uztai beltza zan sortu.



Biak, luzez, burrukatu zuten;  
erori zan euzkia  
bits urtuzko ogean,  
—loak artu aurra amaren altzoan—.  
Euzkiak azken printzez  
beltzari zizkion kiskali  
inguruko ertzak osoro.  
Ikusgarria ziñez!

Alere erori zan,  
erori euzki gaixoa  
nere begien aurrean:  
elkar-iltze zakar ostean  
suntsitu zitzaidan argia.

\* \* \*

Ala-ala, euskal arloan  
kemen aundiz jardunik,  
erori intzan i ere,  
erori intzan betiko.  
Itzali intzan, Aresti,  
eguzki ditzikor!

Aizeak ez dizu geiago  
ille-galparra zirkinduko,  
ezta euzkiak ire kopetari  
berorik ezarriko.

Gandu beltzez betea orain  
ixilik datza Derion  
ire gorpu errimea,  
apeta etoian jausia.

Ire izpiritua, ordea,  
gain dabilkigu urduri  
guztiontzat dalarik  
ezten zirikalari.

OTSALAR

## GABRIEL ARESTI

Gizona pobre edo aberats  
beti dabil afanean  
Bizi modua galtzen duela  
alferrikako lanean  
pena ta mina berdin diola  
barauan eta janean  
ez dakie la zer den mundutik  
sakabanatzen denean.

Abots herrikotzat  
Reboltatu zen,  
Erresuma zaharreko  
Sufrikarioan,  
Trumoi bihurtuaz  
Irrintzi euskalduna.

### G A B R I E L A R E S T I S E G U R O L A

BIHOTZ HANDIDUN SEMEA, BIZITZAN AGERTU ZITZAIGUN HOLA. GU BIZI GAREN MUNDUAN GAUZA ZELAIK, ERRAZAK, ESAN ZITUEN; INOR ESATERA AUSARTZEN EZ ZENEZ, GIZONIK HUMILENEN ETA HERRI BAZTERTUAREN ALDE. ESKU BETEKA BILTZEN ZUEN EGIA, EZKER—ESKUBI BEGIRATUAZ EUSKAL HERRIA. ITZALA EMAN NAHI DUENAK ARGIA HARTU BEHAR DU. BERE BIHOTZA EZKERREAN ZEGOEN ETA BERTAKO ODOLA GORRIA ZEN. HALA ERE, LATIN ITSASORA ATERA GABE, AITAREN ETXEA DEFENDITU ZUEN. ETA POESIA MAILU BIHURTZEN ZUENEZ, AITAREN ETXEKO MINTZOAK IRAUNEN DU ZUTIK!: H A R R I E T A H E R R I , E U S K A L H A R R I A , H A R R I Z K O H E R R I H A U , EUSKAL LITERATURA TXERTO BERRIZ HORNITUZ ETA INDARTUZ. ETA EGUNEN BATEAN MUNDUAK AKABATUKO DIRENEZ, BERAK ESTALDU ZITUEN EGUNAREN ETA GAUAREN ATE MEHARRAK. ORAIN, KORPUTZ, LUR HONETAN EHORTZIRIK DATZA, OHORE HAU EZ DIOTE UKATU GIZONEK. KANPAIEK EZ ZUTEN OTOITZERA DEITU. BAINA, LAUDA!, POETEN PARNASO HARTAN, GOIKO ZERUAK GORDE DEZALA BETIKO BERE ARIMA...

## GABRIEL ARESTI-RI ORROITZEZ

Bertsolarien doñu bat lagun olerki bezala zuri,  
Gogo bihotzak goibeldurik naiz bainan poxi bat urduri.  
Ez dakit nondik ikusten nauzun ez ere nahia duzun  
Zu oskarbi batzutan bezanbat ni ere bainago ilun.

Gure biziak, zerk bultzatuak? berdin hoin laster galduak  
Zuretzat ere oskorri gabe jo behar azken orduak!  
Ikusi zaitut ahotik ortzi, bihotz zolatik ikaraz  
Euskal gogoa duzu ernaldu etsi gabeko nigarraz...

Mendi tontorrek batzuek gorantz, zuk aldiz zertazko diren,  
Ez bazintuen denak zuekin nor da hortaz harrituren?  
Zure zurean nahi zintuzten batzuk berenaz ordaindu  
Zuk aldiz erran duzu harriak behar direla arraildu!

Mendietan lehoin asko balitz zu ere hor zintuzkedan,  
Marroekin eta bildotsekin ur beretik nahiz edan.  
Bainan ez dira hola egiten gauzak gizonen legeaz  
Bakea gerraz bezala nahiz gorria kendu xuriaz!

Zure izanaz nahi duena erran beza nork edo hark  
Zuk ere bazinakien ongi nondik atera pindarrak...  
Haizeak beti azkar jotzen du Kantauriko txalupetan  
Zure eginak eta ezinak sartuz hoiien oihaletan.


Ene hauzoak eskatzen badit nor zen bi hitzez Aresti:  
«Etzian gizon honek beharrik azukrearekin ezti!  
Atzo bezala ikusten diat han dagoela orroitzen  
Borrokan direla gizarteak, guziz gurea, askatzen...»

RAMON SAIZARBITORIA

## HONEZ GERO

Halako batean  
ez hitzean gehiago kexatu  
—deskansatu egin genian  
mementoa desiratzen hasiak geundenok—  
Serenatu hituan, azkenean, hire aurpegiko ibar gris  
atormentatuak. Edozein heriotz okasional, arrunt,  
korriente bat erreflejatzen zian ispiluak  
eta itzal luzeek zorrozten zitean  
perfil hotza.

Mekanismo hautsi bat  
bezala galdu hituan oraindik azken  
odol tantak, murmurio lerdo baten haizeak atear  
zabaldut zituanean. Mesanotxe gainean  
lent eek bakarrik konserbatzen ziaten  
hire kristal opakoen  
espresio galdua.



D. Txopitea

txopitea  
5/75

## EZTEBE PAREDOIAN

### (Zirriborro probisionalak)

PAREDOIA mementorik krudelena da  
Mementorik krudelena zazpiretako egunsentian paredoian  
Egunsentian paredoian eztarrira iganda korapilatzen  
Zaituen  
Antsia  
Zer egun da, zer ordu da, Jauna?  
Angustia  
Eztarriko korapiloan esplikagaitza: hau gerra da  
Hau gerra da. Mendien beste aldean, itsasoraino  
Zure lagunak borrokatzen jarraikitzen dira  
Oraindik. Diotenez  
Gauetz berrirabazten dute egunez  
Abioien pean galtzen duten haitza.  
Lautada honetatik iparralderantz behatzen duzu,  
Mendiez bestaldeko gerrara paredoiko pake  
Ikaragarritik: iparralderantz  
Zuk. Zuk  
Aldiz hegoalderantz, zeren hegoaldetik sortalderantz  
Hegoaldetik sortalderantz zazpiretako egunsentitik  
Etsaia  
—zure itsasoa orain lehen aldiz ikusi duen etsaia  
Intxortako zure trintxerara helduko baita.

Paredoia da unerik krudelena  
1937ko udaberriko haize urratuan



Gasteizko lautadaren gainetik  
gortzen duten  
abioi urrundik helduak pasatzen  
ikusten dituzu  
Ongiaren eta Gaizkiaren infernutik batbatean jetsirik  
zure batailoi ditximatua birditximatuko dutenak dira  
zure laguna oroitzapen bihurtuko dutenak  
eurian  
agian ama alargunduko duten abioi urrundik helduak  
pasatzen ikusten dituzu  
zuk. zuk  
goizero zeure trintxeran, Intxortan edo Lemoan

Zer ordu da, zer egun, Jauna  
itxaroten dituzunak dira, berehala,  
Ongiaren eta Gaizkiaren infernutik jetsirik,  
Bonben pean munduaren eta bizitzaren zentzua gal  
dezazun arte  
Bizitzeko gogo zoro hori, etxeko pake subazterra  
gortzen duten abioi urrundik helduak  
zure emaztea, emaztegaia edo arreba zaharrena erretagoardian  
akabatuko dutenak dira  
zure seme txikiak edo anaia jaio berriak  
eskolan ikasiko ez dituen  
bonbaldietan...

ORAINDIK EZ ZEN habearen suntsidura eta kea  
metal irakinaren labetik jeistean  
atsegin ez zitzaizkizun gauzak,  
uniformeak eta numeroak, espaloia  
lege derrigorrezkoa zure bidexigor oin-hutsa azpiratzen,  
eta garoaren eta kresalaren  
hondamendia, oraindik ez ziren  
mila baino kantitate handiagoak,  
oraindik ez hizkuntza arrotza  
plomozko letra belikoez eskolaren paredoietan ikas-arazia  
zure hitz sehaskatsua amaren ezpainetan  
zetiutzen.

Oraindik kanpaiaren erreinua zen nekazariaren  
jeografian, eta olaren ximista alde aurretik  
aditua, atariko xakolin bertsolariaren  
jakituria ahoz-aho ezagutarazia. Orduan zen  
hamaika harri zutituen harremana, haritzaren hizkuntza  
udalehentsua abarkaren eta makilaren esan-nahi  
azkenean.

Oraindik taula zen, eta xalupa, konstelazio ikas-berrien  
azpian, izugarria lamia-koba pertsekutatuaren keinua  
artzainaren ezpain tolesgabea.

Ihiztari inoiz aipatuaren kanabera soila  
errekaren borondate guztiz mehearen egokitasuna  
borobilki gurutzatzen. Oraindik laboraria, kapitain bere goldean,  
eta uhin basatiaren krudelkeria arrokan  
miserere arrantzalea ondartzaren hertzean ehortzen.

Baserritik jeisten den eztaigurdian

lihozko izera brodatuaren

jabego oso hori, aztorearen eta oin hutsaren  
aboz oraindik ez lurperatua, noiz ezarri zen  
zure adin ahalguztiduna ?

Zure itsasoa ezagutzeko berrogei egunez eta berrogei gauez  
ibili behar izan duenak  
ez daki irakurtzen  
zure arbola elementalaren orria eta  
zure euriaren zuhurtasunaren eskuizkribua  
kalendarioz-kalendario  
mormoratua.

## UNIBERTSOAN EHORTZIRIK

arrotz zeure etxean

ate hertsiren eta leiho ahulki argituren

ordu ezaguean

ME HACEN EL FAVOR SEÑORES, SON 182

ke airean zintzilikatuaren eta errege destronuratuaren  
garaia da

Drugestorearen hesteetako zaldi izugarrietan.

Bost edalontzi husturen artean **Me han dicho que escribes en vasco  
qué difícil, no?** Gasteiztarra, Estibaliz  
etorri behar ez lukeen trenaren xistua  
bezala. Udaberri berri honetan ez dituzu aurpegiak ikusten  
soilik behera-behar eragotzia lege orotatik at  
**POR FAVOR SEÑORES, QUE VAMOS A CERRAR**  
soilik hautsontzia pospolo erre eta zigarro-hondarrez gainezka  
beste egun bat beste hainbat bezalakoa.

**Pues nos lo pasamos ideal.** Zu.

Zu, arrotzunaren muga ikaragarrietaraino arrotz  
amorantearen ezpain urrunetan gudari beti bentzutua

**POR FAVOR SEÑORES, BUENAS NOCHES**

geldi zaitez orain nirekin

**BUENAS NOCHES. BUENAS NOCHES, SI, BUENAS NOCHES.**

**Oh! aquí siempre está lloviendo**

**AGUR, BUENAS NOCHES.**

Donostian, Euskal Herria

gu eta gure poema-liburuaren paredoi izugarriak.

Zure bihotza da paredoirik desolatuena.

(Oharra: Duela urte t'erdi, «Lauaxeta»-ren heriotzaren inguruan poema luze bat lantzen hasi nintzen, anglosaxoi poemagintzaren, eta bereziki T. S. Elliot-enaren irakuraldien ondorioz. Poema, *Maldan Behera*-ren egile Gabriel Aresti-ri eskainia pentsatu zen. Hemen papereratu direnak poema horren zati landu eta publikagarrienak dira, bere probisionaltasunean.)



J. Ugarte

*J. Ugarte*

MARTIN TEJERIA-EIZMENDI

## HAIZE AGIRRE

haizea erori egin zait  
neguetan ihes  
inongo saio lasterren  
motzenean  
aldegin dit haizeak;  
hats aldendu bat geratu zait  
haize erori bat  
tristura ezberdin biak  
artean  
mingarra dariola bati  
eta hari  
nigarra dario.  
orrua dagite biek  
eta asnasa  
eta ezina  
ezinezko orruz  
asnasezko kantuz diraute  
negu arteko haizeak  
hats hartu artean  
aldegin artean.

## KALEKO UMEA

Ba bait zen behin  
hieltsozko lehio meharreko jeranioa  
eta ladriluzko paretako lauki erretratoduna  
eta azerako lauki trixtean berriz  
—burdinezko kartzelez, autoetako protekzioz—  
azi zen olmoa.

Ba bait zen orduan  
olmo trixte trixte hura  
—arbol erromanoa—  
zuhaitz hautsez betea  
kaleetako burrunban  
herstutasunean bulkaka  
jendarteko anima bakarti hura  
azeretako ur zikinetan  
iturritako ur orban gabea  
xurgatu nahiean zebilen  
gizaki egarritsu hura  
baina oihan eta basoak  
amonaren ipuinak  
kondairak  
gogortzen zitzaizkion  
arrakatzen  
hausten...

Herria ordea  
herritarrak alegia  
ez zitzaizkion bertaratzen  
ondoratzen  
egokitzen...

Nabari da eta ba derama  
ikarariak erantzuna  
ba bait dakigu ba dela  
askatasun oihartzuna...

Ume atera zen  
kale pobrera ate herstudik  
eta olmoak  
«kaixo» esan zion  
txolarreak agurtu zuen  
zerbeza kajak eta makinak  
ezgutu zituen bar batean  
kaka egiten duten egazti batzuk  
usoak izena dutela ohartu zen  
eta otsail batean  
—huelga izandu zen hartan alegia—  
igarotako goseak  
betirako  
—betikotasunerako—  
ezarri zion bere izaerari tankera:  
txolarrea eta jeranioa  
plastikoa eta olmoa...

Nabari da eta ba derama  
ikarariak erantzuna  
ba bait dakigu badela  
askatasun oihartzuna...

Teilatu iskinetan, agerian  
jotzen dute larrua usoek  
atarietan egiten gainka zakurrek  
gorrotoaren irreberentziaz

amorruaren eragin eroaz  
kastitarearen lirio guztiak  
akzido urikoz erre ondorean  
jeranioaren boluptuosiodade txolarrezua  
putreoki dastatuz  
—ba bait zen egun hartan zeren negar egina—  
izadiaren aldarean  
hogeitabost «birgotako» odola ixuri zuen  
eta geroztik  
olmo batek trixteki  
burua makurtu du bi aparkamendu sor ditezen  
jeranioari floreroa haizeak bota dio  
eta ibilkariak salda berdoska bihurtu dute  
eta geroztik  
amets egiten du berriro  
eta eskatzen eta erregutzen  
—ondoreari—  
herrien askatasuna  
eta gizonen berdintasuna  
nabari bait da deramala  
ikarariak erantzuna  
ba bait dakigu ba dela  
askatasun oihartzuna...





ZU  
REGAKIARIK  
RE-  
MARAMA  
TEKI  
HOIK  
HAIZ  
FAIRE  
LEGA  
LAK  
DI  
RA

R. Ugarte de Z.

R. Ugarte de Z.  
1978

# HARRIZKO HAMALAU KOA GABRIEL ARESTIRI

Non-nahiko taberna zuloan zure bozak  
aspreki, solasetan oro zuen lehertzen;  
gero, kaleetan zehar zinen paseiatzen,  
haizatuz memorietako ezin pairatu lotsak.

Gazte kezkatioi zure iraun garratzak  
zorrotasun bidea zigun adierazten,  
non diren benetan beharrak oroitarazten,  
nola jo ditu euskal herriak zigor gaitzak.

Halabaina, bizi ezinaren eskoletako  
zelaietan zenbiltzen soil, eta armaturik  
dialektikaren suaz usua askatzeko.

Gaur, elurra urtu da, belztu da tristaturik  
karrikan haurtxoari negarra baitario,  
eta estratak odolez baitaude gorriturik.

*MIKEL ZARATE*

## PENTSAMENTU TXARRA

Biloizkeriaz jantzi zuten  
biloizkeria begitan duten  
gixaxo itsuek,  
eta zuek  
niri eman  
aingeruen goizean.

Lirdinga ta likits  
(lizunkeriaren bits),  
pentsamentu txarra  
bakarra  
zen  
orduan  
irudimenaren  
ziegan.

Maite-zoro,  
egunoro,  
jarri ninduen,  
ta zer zen  
osorik  
jakin nahirik,  
biloiztu egin nuen,  
bat-batean,  
gizonen goizean.


Biloiztu egin nuen...,  
ta biloizkeria kentzean,  
dardara bihotzean,  
naskagarri  
ta izugarri  
bihurtu zen  
maiteena,  
bat uste nuena  
asko bai ziren:  
hau beheratzeko  
gurari,  
hori salatzeko  
nahiari,  
hura iltzeko desio,  
irudimenezko madarikazio...

Biloizik eraman diet  
gixaxo itsuei,  
biloizik ematen dizuet  
zuei.

*MIKEL ZARATE*

# EUSKAL LITERATURAREN ARROKERIA

Etxe ederrak dituzte,  
etxe ederrak  
nire auzokoek,  
ta zenbat loretegi  
ta zuhaitz nabarmen,  
zenbat kotxe eder,  
zenbat ondasun,  
zenbat jende...!  
Zenbat aberats  
ditudan hemen,  
mutilzahartu zaidan  
txabolari parrez!  
Eta mindu  
egin naute  
aberats arroek,  
ta arrotu egin naiz  
ni ere,  
ezinaren ezinez,  
ta auxe  
esan diet:  
«Pobrearen egoera  
zuena baino obe.  
Ezin didazue  
ohostu ezer,  
ezin lapurretarik  
niri egin!  
Hale!»



J. Urquijo

Urquijo.

IÑAKI ZUBIZARRETA

## GABRIEL ARESTI

Gabriel Aresti,  
euskal herri  
zaituaren  
poeta,  
hire heriotzak  
dei ozen bat  
zekarkidak gogora,  
gero ta idartsuago  
gure herri honen  
bazter guzietara  
zabaltzen den  
ALKARTASUN-deia.

Gure herri  
zaituaren  
miña  
izan duk lagun  
heriotzeraino;  
miñ huen  
heure barnean  
euskal herriaren  
zauria.  
Sendabide bila  
ibilia haiz  
hire munduko  
urte llaburretan.  
Sendabide bila  
larri eta urduri,  
OMENIK beroena HIRI  
euskaldunon  
bihotz barrenendik.

J. ZULAIKA

## EGUZKI BAT IMAJINATZEN

**«ni naiz naizena, bai, naizena, ez  
eznaizena»**

**(G. Aresti).**

Hementxe hesteetan luzaro nahasmendu kontrolaezina  
Guztia hain alferrik intensoa hain alferrik akabatua  
Zer hautsi ote zaigu zeri ote gaude oraindik loturik  
Eguzki larriaren dantza iluna gure ikaramenduan honela

Hain gorria oro eta dardara palido zulatuan biraka  
Hauetxek bizitze bortitzagoaren esijentziak aluzinazioak  
Krudeltasun honetaz hementxe goatzera deliberatuak  
Eguzki hurbil bat ezik nola engaina hainbat dizdirek

Lurrari abandonatuak eta ezinbestez bizirik oraindik  
Hementxe hesteetan derrigorrezko eguzki bat imajinatzen  
Maldan behera eta nola zekiagu bada «gizonagoak» garela  
Eguzkia irabazteko martxa bat dela sinesten jarraituko diagu





Zuzana 22-11-7

# POETEN BERRIAK

*Izen deituren ondolik sorterria eta  
sorturtea jartzen dira eta azpian  
poesiaz argitaratu dituzten liburuak  
edo beren poemak argitaratu dituzten  
aldizkarien izenak.*

Alberto AGIRREAZALDEGI. Elgeta (Gipuzkoa), 1953.

Balendiñe ALBIZU. Zumaia (Gipuzkoa), 1914.  
*Nere olerki txorta*, 1972.

Nikolas ALZOLA GEREDIAGA. Izurtza (Bizkaia), 1922.  
*Kantuz eta itxaropenez saila* «Egan»en zatika.  
Euzko-gogoa, Olerti.

Antton ARANBURU. Usurbil (Gipuzkoa), 1950.

Mikel ARREGI. Areso (Nafarroa), 1948.  
*Hego haizearen konpasean*, 1975.

Fernando ARTOLA. Hondarribia (Gipuzkoa), 1910.  
*Goraintzi*, 1968.  
Euzko-gogoa, Olerti.

Jose Antonio ARZE. Usurbil (Gipuzkoa), 1939.  
*Isturizetik Tolosan barru*, 1969.  
*Laino guzien azpitik...*, 1973.  
*Eta sasi guztien gainetik...*, 1973.  
Egan, Zeruko Argia.

Balendin AURRE APRAIZ. Axangiz (Bizkaia), 1912.  
Euzko-gogoa, Egan, Eman..., Olerti.

Joxe AZURMENDI. Zegama (Gipuzkoa), 1941.  
*Hitz berdeak*, 1971.  
Olerti.

Xabier AZURMENDI. Zegama (Gipuzkoa), 1935.  
*Izatearen malura*, 1971.  
*Maiteño*, 1974.

Antonio BILBAO. Morga (Bizkaia), 1937.  
*Pentsakizunak*, 1975 (Liburu honen kapitulu hasieretan zenbait poesia argitaratzen ditu).

- Manex ERDOZAINCY-ETCHART. Ibarla (Baxe-Nabarre), 1934.  
Elgar, Gazte, Euzko-gogoa, Egan, Gure Herria, Jakin, Olerti.
- Eusebio ERKIAGA. Lekeitio (Bizkaia), 1912.  
Euzko-gogoa, Egan, Olerti.
- Manu ERTZILLA. Aspe-Atxondo (Bizkaia), 1953.  
*Hitzik anitz idatzi dut*, 1977.  
Kurpil, Gaiak.
- Eñaut ETXAMENDI. Ezterenzubi (Baxe-Nabarre), 1935.  
*Azken elurra*, 1975 (Zenbait poesia dituen eleberria).  
Enbata, Herria, Gure Herria.
- Juan Anjel ETXEBARRIA. Santurtze (Bizkaia), 1934.  
*Gurutz bidea*, 1966.  
*Maitegaldua*, 1966.  
*Lo ta amets*, 1967.  
*Basoko loreak*, 1967.  
Olerti.
- Patxi ETXEBERRIA, S. J. Andoain (Gipuzkoa), 1900.  
Argia, Euzko-gogoa.
- Bitoriano GANDIAGA. Mendata-Arratzu (Bizkaia), 1928.  
*Elorri*, 1962.  
*Hiru gizon bakarka*, 1974.  
*Uda batez Madrilén*, 1977.  
Euzko-gogoa, Jakin, Aranzazu, Egan, Olerti.
- Juan Inazio GOIKOETXEA. Gaztelu (Gipuzkoa), 1908.  
*Gaquean oihu*, 1972.  
*Biziaren erroetan*, 1972.  
Olerti.
- IRATZEDER (Xabier DIHARCE). Donibane Lohizune (Lapurdi), 1920.  
*Pindar eta lanho*, 1954.  
*Zeru menditik*, 1959.  
*Argiz argi*, 1969.  
Gernika, Euzko-gogoa, Herria, Gure Herria, Otoizlari.
- Juan Mari IRIGOYEN ARANBERRI. Altza (Gipuzkoa), 1942.  
*Hutsatik esperantzara*, 1975.
- ITSUBIA (Gurutze MUJIKA). Altza (Gipuzkoa), 1950.  
Zeruko Argia.
- Martin ITURBE BALDA. Ikaztegieta (Gipuzkoa), 1932.  
*Bizitzaren urratsetan*, 1973.  
*Asekaitz*, 1974.
- Paulo IZTUETA. Berastegi (Gipuzkoa), 1941.  
Olerti, Jakin, Egan.
- Jaime KEREXETA. Elorrio (Bizkaia), 1918.  
*Orbelak*, 1958.  
*Bitargi*, 1960.  
Euzko-gogoa, Olerti.
- Edorta KORTADI. Tolosa (Gipuzkoa), 1946.  
*Arteginza, artista, gizartea*, 1974. (Saiaera interesgarri honen aipamena dakargu, liburu honetan edergarritz lagundu duten artisten lanak hobeto ezagutzen laguntzen duelako).
- Daniel LANDART. Dohostiri (Baxe-Nabarre), 1946.  
*...Hogoi urte*, 1968.
- Gexan LANTZIRI (Gexan ALFARO). Urepel (Baxe-Nabarre), 1941.  
Herria, Enbata, Gure Herria, Zabala, Txantxikitin.
- Amaya LASA. Getaria (Gipuzkoa), 1948.  
*Poema bilduma*, 1971.  
*Hitz nahastuak*, 1977.  
Egan.
- Mikel LASA. Getaria (Gipuzkoa), 1938.  
*Poema bilduma*, 1971.  
Egan, Olerti.
- Juan Mari LEKUONA. Oihartzun (Gipuzkoa), 1927.  
*Mindura gaur*, 1966.  
*Muga beroak*, 1973.  
Olerti.
- Xabier LETE. Oihartzun (Gipuzkoa), 1944.  
*Egunetik egunera orduen gurpillean*, 1968.  
*Bigarren poema liburua*, 1974.
- Bittor MUJIKA. Ordizia (Gipuzkoa), 1955.

- Abel MUNIATEGI. Ereño (Bizkaia), 1942.  
Oleriti.
- Sabin MUNIATEGI. Gautezig-Arteaga (Bizkaia), 1912.  
*Goi aize*, 1936.  
Oleriti.
- Luis Maria MUXIKA. Lizartza (Gipuzkoa), 1939.  
*Bide giroak*, 1963.  
*Urdir eta burni*, 1965.  
*Hitzak ebakitzen*, 1976.  
Goldaketan, Oleriti.
- Santi ONAINDIA. Amoroto (Bizkaia), 1909.  
*Goiznabar* (Olerki bilduma, 1929-1950), 1970.  
Euzko-gogoa, Egan, Oleriti.  
(Bere zuzendaritzapean argitaratu zen Oleriti izeneko poesi aldizkaria, 1959tik 1969ra bitartean. Hemen kolaboratu zuten garaiko olerkariak eta behar beharrezkoa da gerraondoko belaunaldia ezagutzeko. Bestalde, *Milla euskal-olerki eder*, 1954, bildumaren egilea da).
- OTSALAR (Juan SAN MARTIN). Eibar (Gipuzkoa), 1922.  
Euzko-gogoa, Egan, Oleriti.  
(*Uhin berri*, 1964-1969 poesia bildumaren egilea).
- Manex PAGOLA. Landibar (Baxe-Nabarre), 1941.  
Herria, Enbata, Gure Herria, Gazte.
- Ramón SAIzarBITORIA. Donostia, 1944.  
*Poesia banatua*, 1969.
- Ibon SARASOLA. Donostia, 1946.  
*Poemagintza*, 1969.  
Jakin.  
(*Gerraondoko Euskal-poesiaren antologia*, 1945-1964, liburuaren egilea, 1973).
- Martin TEJERIA-EIZMENDI. Errenderia (Gipuzkoa), 1951.  
Zeruko Argia, Zabal.
- Gorka TRINTXERPE (Patxi ZABALETA). Leitza (Nafarroa), 1947.  
*Zorion baten zainak*, 1972.  
*Gorriak*, 1975.  
Principe de Viana.
- Patri URKIZU. Lezo (Gipuzkoa), 1946.  
*Torrejilko kanta*, 1977.
- Mikel ZARATE. Lezama (Bizkaia), 1933.  
*Higidura berdez*, 1977.  
*Haurgintza minetan*, 1973; *Ipui antzeko*, 1975. (Bi liburuotan zenbait olerki ematen ditu).  
Oleriti.
- Iñaki ZUBIZARRETA. Azpeitia (Gipuzkoa), 1947.  
*Heriotzaren eta biziltzaren mugetako ene hitzak*, 1975.
- Joseba ZULAIKA. Itziar-Deba (Gipuzkoa), 1948.  
*Adanen poema amaigabea*, 1975.

# ARTISTEN ZERRENDA

**Liburu honetan parte hartu duten  
artisten izenak eta bizilekuak  
soilik jartzen ditugu.**

<i>J. G. DE AGUIRRE</i>	<i>Gasteiz</i>
<i>J. J. AQUERRETA</i>	<i>Iruña</i>
<i>J. AROCENA</i>	<i>Donostia</i>
<i>N. BASTERRECHEA</i>	<i>Hondarribia</i>
<i>F. BEORLEGUI</i>	<i>Eibar</i>
<i>F. BERISTAIN</i>	<i>Ondarrua</i>
<i>C. BIZKARRONDO</i>	<i>Donostia</i>
<i>D. BLANCO</i>	<i>Bilbao</i>
<i>E. CHILLIDA</i>	<i>Donostia</i>
<i>J. EGAÑA</i>	<i>Arantzazu</i>
<i>J. GARRO</i>	<i>Deba</i>
<i>J. L. GOENAGA</i>	<i>Alkiza</i>
<i>T. HERNANDEZ MENDIZABAL</i>	<i>Donostia</i>
<i>A. IBARROLA</i>	<i>Bilbao</i>
<i>S. IÑURRIETA</i>	<i>Gasteiz</i>
<i>I. LARRAÑAGA</i>	<i>Elgoibar</i>
<i>V. LARREA</i>	<i>Algorta</i>
<i>R. MENDIBURU</i>	<i>Intza (Araiz)</i>
<i>J. MIEG</i>	<i>Gasteiz</i>
<i>F. MIRANTES</i>	<i>Bilbao</i>
<i>A. OLARIAGA</i>	<i>Donostia</i>
<i>C. ORTIZ DE ELGUEA</i>	<i>Gasteiz</i>
<i>J. DE OTEIZA</i>	<i>Alzuza - Zarautz</i>
<i>RUIZ BALERDI</i>	<i>Donostia</i>
<i>P. SAINT-ESTEBEN</i>	<i>Kanbo</i>
<i>A. TAPIA</i>	<i>Usurbil</i>
<i>J. M. TELLERIA</i>	<i>Segura</i>
<i>D. TXOPITEA</i>	<i>Eibar - Zarautz</i>
<i>J. UGARTE</i>	<i>Zarautz - Donostia</i>
<i>R. UGARTE DE Z.</i>	<i>Oihartzun</i>
<i>J. URQUIJO</i>	<i>Bilbao</i>
<i>J. L. ZUMETA</i>	<i>Usurbil</i>